



HAL
open science

”Gora, gora, jendeac!” Euskal testu berriak XVI. eta XVII. mendeetako justizia auzibide nafarretan

Ekaitz Santazilia

► To cite this version:

Ekaitz Santazilia. ”Gora, gora, jendeac!” Euskal testu berriak XVI. eta XVII. mendeetako justizia auzibide nafarretan. Euskera. Euskaltzandia’re lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de l’Academie de la Langue Basque, 2018, 63 (2), pp.419-460. artxibo-02295148

HAL Id: artxibo-02295148

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02295148>

Submitted on 24 Sep 2019

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.



2018
63, 2, 1

EUSKERA

2018
63, 2, 1

IKERKETA ZENBAKIA

Artikuluak

- Bijuesca, K. Josu: *Euskal subjektu literarioaren kontzientzia bikoitzaren genealogia baterantz: Antzinako Erregimeneko zenbait euskal poemaren izenak eta burdinaren topikoa*
- Coyos, Jean-Baptiste: *Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua*
- Duguine, Isabelle: *-tegi leku-atzizkiaren aldaeraz: toponimiaren ekarpenak euskal fonetikari*
- Hurch, Bernhard: *El diccionario vasco de Rudolf Cruel*
- Jauregizar, Amaia: *Euskararen Herri Hizkeren Atlas: ezaugarrietatik gorputz-atalen polisemia-kasuetara*
- Juaristi, Patxi: *Adostasunaren eta gatazkaren paradigmatik euskal soziolinguistikan*
- Maia Larretxea, Julian: *Aditza aitzinago ekarriko dugu, efizienteago komunikatzeko?*
- Ortiz de Pinedo, Aitor: *Jean Etxepare Bidegorri zubigile*
- Pérez Artutx, Gotzon: *Mariano Mendigatxa Ornat eta Erronkaribarko uskara*
- Santazilia, Ekaitz: *Gora, gora, jendeac! Euskal testu berriak XVI. eta XVII. mendeetako justizia auzibide nafarretan*

Oharrak

- Aulestia, Gorka: *Trayectoria vital y Pensamiento de Miguel de Unamuno (1864-1936)*
- Mishor, Dr. Mordechay: *El hebreo con sus emparentadas y el euskara: coincidencias lingüísticas*



EUSKERA



Euskera 2018, 63, 2, 1
145-544



2018
63, 2, 1

EUSKERA

2018
63, 2, 1

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



Euskera 2018, 63, 2, 1 145 - 544, Bilbo. ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44
posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • [webgunea: www.euskaltzaindia.eus](http://webgunea:www.euskaltzaindia.eus)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.
Costa, 12-14, 7º izda. – 48010 Bilbo

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.
2019ko uztailean inprimatua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzeakoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2019): C maila

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet

Indicadores de calidad:

CIRC (2019): Categoría C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2018, 63, 2, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet

Indicateurs de qualité :

CIRC (2019) : Catégorie C
MIAR (2018) : 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of *Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database

Quality indicators:

CIRC (2019): group C
MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2018, 63, 2, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Teknikaria: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.
Euskaltzaindia. Donostia

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
*CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea.
Tolosa, Okzitania.*

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGAIN
*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona*

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
*CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences por Bordeaux. Bordele*

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, Paris. Kolombiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENENKO OREGI
Eusko Jaurilaritza. IZOko burua. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madrid

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

EUSKERA

AURKIBIDEA

ARTIKULUAK:

- [155-183] *Euskal subjektu literarioaren kontzientzia bikoitzaren genealogia baterantz: Antzinako Erregimeneko zenbait euskal poemaren izenak eta burdinaren topikoa*
BIJUESCA, K. Josu
- [185-208] *Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua*
COYOS, Jean-Baptiste
- [209-234] *-tegi leku-atzizkiaren aldaeraz: toponimiaren ekarpenak euskal fonetikari*
DUGUINE, Isabelle
- [235-259] *El diccionario vasco de Rudolf Cruel*
HURCH, Bernhard
- [261-298] *Euskararen Herri Hizkeren Atlas: exaugarrietatik gorputz-atalen polisemia-kasuetara*
JAUREGIZAR, Amaia
- [299-322] *Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan*
JUARISTI, Patxi

- [323-363] *Aditza aitzinago ekarriko dugu, efizienteago komunikatzeko?*
MAIA LARRETXEA, Julian
- [365-391] *Jean Etxepare Bidegorri zubigile*
ORTIZ DE PINEDO, Aitor
- [393-417] *Mariano Mendigatxa Ornat eta Erronkaribarko uskara*
PÉREZ ARTUTX, Gotzon
- [419-460] *Gora, gora, jendeac! Euskal testu berriak XVI. eta XVII.
mendeetako justizia auzibide nafarretan*
SANTAZILIA, Ekaitz

OHARRAK:

- [463-509] *Trayectoria vital y Pensamiento de Miguel de Unamuno
(1864-1936)*
- [511-522] *El hebreo con sus emparentadas y el euskara: coincidencias
lingüísticas*

***Gora, gora, jendeac!* Euskal testu berriak
XVI. eta XVII. mendeetako justizia
auzibide nafarretan**

***Gora, gora, jendeac!* Nuevos textos en euskera en
procesos judiciales navarros de los siglos XVI y XVII**

***Gora, gora, jendeac!* New texts in Basque in Navarrese
judicial processes from the 16th and 17th centuries**

***Gora, gora, jendeac!* Nouveaux textes en langue basque
dans les procès judiciaires navarraïns du XVI^e et XVII^e
siècles**

SANTAZILIA, Ekaitz
UPNA/NUP
ekaitz.santazilia@unavarra.es

Noiz jaso: 2018-09-26
Noiz onartua: 2019-03-07

Euskera. 2018, 2, 1. 419-460. Bilbo
ISSN 0210-1564

Lan honetan XVI. eta XVII. mendeetako auzibide zenbaitetan ageri diren euskarazko pasarteak aztertu ditut. Hasteko, eskribauek lekukoen ahotik pasarteok nola eta zergatik jaso zizkieten azaldu dut. Ondoren, dialektologiari eta hizkuntzalaritza historikoari egin diezaieketen ekarpenaz aritu naiz. Jarraian, Iruñea, Urdiain, Uxue-Pitillas, Nagore eta Oronozko testigantzak editatu eta ikertu ditut. Buruenik, hizkuntza ezaugarriak zerrendatu ditut, eta lexikoia eta adizkitegia atondu.

Hitz-gakoak: Nafarroa, euskara arkaiko eta zaharra, justizia auzibideak, hizkuntzalaritza historikoa, dialektologia, filologia.

En este trabajo he estudiado los pasajes en euskera que aparecen en algunos procesos judiciales de los siglos XVI y XVII. Primeramente, he explicado por qué y cómo recogieron los escribanos dichos pasajes de boca de los testigos. Después he tratado sobre la aportación de dichos textos a la dialectología y a la lingüística histórica. A continuación he editado y analizado testimonios de Pamplona, Urdiain, Ujué-Pitillas, Nagore y Oronoz. Finalmente, he enumerado los rasgos lingüísticos, y aportado un lexicón y listado de verbos.

Palabras clave: Navarra, euskera arcaico y antiguo, procesos judiciales, lingüística histórica, dialectología, filología.

Dans ce travail j'ai étudié les passages en langue basque qui apparaissent dans certains procès judiciaires du XVI^e et XVII^e siècles. Tout d'abord, j'ai expliqué pourquoi et comment les scribes ont recueilli ces extraits de la bouche des témoins. J'ai abordé ensuite la contribution qu'ils peuvent apporter à la dialectologie et à la linguistique historique. Puis, j'ai édité et analysé les témoignages de Pampelune, Urdiain, Ujue-Pitillas, Nagore et Oronoz. Enfin, j'ai énuméré les traits linguistiques, apporté un lexique ainsi qu'une liste de verbes.

Mots-clés : Navarre, basque archaïque et ancien, procès judiciaires, linguistique historique, dialectologie, philologie.

In this work I have studied the passages in Basque included in several judicial processes from the 16th and 17th centuries. Firstly, I have explained how and why scribes collected these passages from witnesses. Afterwards, I have addressed the contribution they may make to dialectology and historical linguistics. Then, I have edited and studied testimonies from Pamplona, Urdiain, Ujue-Pitillas, Nagore and Oronoz. Finally, I have listed the linguistic features, and provided a lexicon and a list of verbs.

Keywords: Navarre, Archaic and old Basque, judicial processes, historical linguistics, dialectology, philology.

1. Sarrera: justizia auzibideak eta euskara¹

Aspaldi dakigu, Mitxelenaren (TAV), Sarasolaren (ConTAV) edo Sartrustegiren (1987) lanei esker besteak beste, iragan mendeetako justizia auzibideen gaztelaniazko dokumentazioan euskarazko pasarteak ere aurki daitezkeela bakanka, eta han hemenka sakabanaturik. Azken urteetako aurkikuntzek eta bildumek (Trebiño, 2001; Maiora, 2011 eta 2018; Mada-riaga, 2014; Santazilia, 2015; 2017; 2019; Monteano, 2017; Reguero, 2017) hori berretsi dute, baita corpusa erruz zabaldu ere. Ordutik, dugun testu kopurua ikusita eta horiek duten izaera homogeenari so, genero beregain-tzat hartu eta ikertu daitezkeelakoan nago, hizkuntzaren historiako eta dialektologiarako datu-iturri interesgarriak baitira.

Esan bezala, auzibideen dokumentazioa gaztelaniaz idatzirik dago nagusi. Aztergai dugun garaian, XVI. eta XVII. mende hasieran, auzi bateko lekuko bat euskaldun elebakarra zenean, euskaraz egiten zion eskribauak galdeketa, baina jasotako erantzunak gaztelaniara bihurtzen zituen gero, idatziz paratzeko. Kasu bakan batzuetan, hala ere, eskribauak garrantzitsu zeritzon, lekuko euskaldunen hitz batzuk –ez denak– jatorrizko hizkuntzan jasotzen ziren, erdal itzulpenaz lagundurik usu. Gainera, arauk zioten eskribauak bere horretan jaso behar zituela hitzok, deus gehitu, kendu edo moldatu gabe, eta inongo itzultzailearen laguntzarik gabe².

Hartara, hango eta hemengo auzibideetan sakabanatutako euskarazko pasarte laburrek garrantzi handia dute, garai eta leku bateko mintzairaren

¹ Lan honek MINECOK diruz hornitutako *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología* ikerketa proiektuaren sostengua du (FFI2016-76032-P). Bestalde, UPV/EHUko Euskaren Historia eta Hizkuntzalaritza Historiko-Konparatua (GIC 10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatuaren barnean kokatzen da, Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen baitan. Eskerrak eman nahi dizkiet Iñaki Caminori, Maitena Duhaldiari, Dorota Krajewskari, Iker Salaberriri, Patxi Salaberriri eta Eneko Zuloagari lan honen prestaketan modu batera edo bestera eman laguntzagatik.

² Garaiko justiziaren funtzionamenduaz, galdeketak egiteko moduaz eta testuen ekoizpen prozesuaz eta fidagarritasunaz azalpen zehatzagoak daude Santazilia (2017)n eta (2019)n, baita Monteanoren (2017) lan txukunean ere.

lekukotasun idatzi bakarra direlako frankotan³. Kasu zenbaitetan, gainera, egun euskalkia galdurik duten eremuetan jaso ziren. Gainera, asmo literariorik gabeko testuak dira, herritarrek euren ahotik ekoitziak eta ohiko jardunetik hurbil daudenak. Hala ere, geroago erakutsiko dugunez, horietako zenbait aski arazotsuak dira irakurketa edo interpretazio aldetik.

Dialektologia eta hizkuntzalaritza historikorako datu-iturri baliagarria direlakoan, euskararen garai arkaiko eta zaharraren arteko mugan (Lakarra, 1997, § 7; Gorrotxategi eta Lakarra, 2001, § 7; Mounole eta Lakarra, 2018; Mounole eta Gómez-López, 2018) kokatutako Iruñeko, Urdiaingo, Uxue-Pitillasko, Nagoreko eta Oronozko testigantzak izanen ditugu oraingoan hizpide. Peio J. Monteanok eman dit horien guztien berri, eta esker zorretan naiz harekin.

2. Metodologia eta edizio irizpideak

Auzibideak zaharrenetik hasi eta berrienera daude antolaturik kronologikoki. Izenburuan auzibidea zein herritan gertatu zen aipatu dut, zein urtetan gero eta, parentesi artean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian (NEAN) auzibideak duen katalogo-zenbakia eman dut buruenik.

Ondoren, auziaren nondik norakoak azaldu ditut, euskarazko pasarteei testuingurua albait zorrotzen emanaz. Lekukoei eta galdeketen egileei buruzko informazioa eta datak gaineratu ditut, besteak beste. Euskal testuak paragrafo beregainetan eta zembakiturik eman ditut; baita, parentesi artean, auzibideko zein orrialdetan aurki daitezkeen esan ere. Hiru izartxoz banatuta, hizkuntza-azterketa heldu da gero.

³ Testuok, bistan dena, kronologikoki ongi kokaturik daude ardatz kronologikoan. Ardatz geografikoa, baina, zalantzarriagoa da nire ustez. Teorian eskribauek lekukoen hitzak bere horretan jaso behar zituzten arren, susmoa dut eskribauek zerabilten hizkeraren arrastoak ere ez ote diren islatzen (cf. honetaz Santazilia (2017) eta (2019)n esandakoa, eta Monteano (2017, 163 eta hh.), eta ez ote diren, neurri batean, erlatiboki diatopikoak (Camino, 2009, 311 eta hh.). Hala bada, aingura-testu onak (McIntosh *et al.*, 1986; Ulibarri, 2013) lirateke kronologiari so, baina tentuz ibiltzekoak ardatz geografikoari begira.

Euskarazko zein gaztelaniazko pasarteetan, puntuazio markak eta letra larriak gaur egungo ohituretara bihurtu ditut. Hitzen bilkurak aldaketa fonologikorik eragin ez duenean, hitzen banaketa ere gaurkotu dut. Ohar paleografikoak, azalpenak eta zuzenketak oin-oharretan eskaini ditut, eta euskal pasarteetan itzulpenak ere bai, eskribauak auzibidean bertan gaineratu dituenean.

Transkripzioak paleografikoak dira, salbuespen aipagarri zenbaitekin: ese luzeak arrunt bilakatu ditut, eta <u> eta <v>-ren arteko txandaketa ere gaur egungo moldera bihurtu dut, lehena bokalerako eta bigarrena kontsonanterako gordeaz. Gainera, azalpenetan –ez pasarteetan– izen bereziak bateratu ditut, eta grafia gaurkotuan eman.

Bestalde, pasarteetan lagungarri gehitutako iruzkin linguistikoek bi xede dituzte: ezaugarrien beren testigantza jasotzea euskararen historian duten lekua agertuz eta, bestetik, pasarteetan irakurketen berme izatea, bereziki arazotsuak diren horietan. Ahalaz, leku, garai eta genero bereko bestelako testuak baliatu ditut erkaketarako, nahiz eta leku, garai eta genero horien hedadura zabalago edo hertsia goa eskura ditugun testu zaharrek mugatzen duten ezinbestean.

Datu garaikideak baliatu ditudanean, zenbait bilakaera diakroniko edo irakurketa bermatzeko baizik ez ditut erabili konparagai gisa, eta sekula ez testua lekuan eta garaian kokatzeko, ondorio ukronikoetara ailegatzea saihestu asmoz.

3. Testuak

3.1. Iruñea, 1593 (NEAN 12399)

Fiskalak 25 urteko Tristan Ibarreta San Martin Iruñeko zapataria prozesatu zuen jatorri heletarrek Xabat Hualde jostuna akabatzeagatik. 1585eko otsailaren 20ko eguerdian, asteazkenez, Tristan lantokian ari zen lanean beste lankide batzuk lagun zituela, Santxo Agorretaren etxean zuen zapata tailerraren sarreran. Tailerraren parean zen Lope Azkona barberaren etxea.

Une hartan Xabat jostuna tailer aurretik pasatu zen bidean gora, eta Tristanek agurtu. Xabatek burua itzuli, eta Tristan zapatariak bera zela esan zion, baina jostunak muzin egin eta aurrera segitu zuen.

Arratsaldean Xabat Hualde bigarrenez pasatu zen Tristanen zapatari-tailer aitzinetik, eta zapatariak berriz agurtu. Oraingoan zapatariarengana bihurtu zen Hualde, eta berari gaizki ez mintzatzeko esan; bien arteko auzi bat zutela epaitzeko une hartan, eta ez xaxatzeko. San Martin zapatariak, aldiz, agurtzea ez zela iraintzea, eta epaiketa bestela molda zitekeela egin zion arrapostu. Orduan hasi zen liskarra.

Antza denez, Tristanek Maria Arkia, Xabat Hualderen lehengusina, haurdun utzi zuen ezkondu gabe, eta Hualdek salaketa jarri zion zapatariari. Tristanek, ordea, auzia epaiketarik gabe konpon zitekeela agertu zuen; aski diru gastatua zuela ordurako epaiketan, eta gehiago eman ziezaikeela Mariari, epaiketarik ez balego. Gainera Tristanek ez zuen argi zergatik sartu zen Hualde jostuna auzi horretan, bere ustez Maria ez baitzen haren lehengusina, jostunak berak inoiz hala aitortuta. Xabat Hualdek, baina, senide zuela zioen, eta neskatoa berarekin zegoela Iruñean, senar ona bila zezan bidali baitzioten; haatik, berari zegokiola neskarendako justizia eskatzea.

Eztabaida horretan, lekuko zenbaiten arabera, Hualdek guraize batzuk atera zituen, eta Tristanek, berehala, sastakaia. Hualde jostunak Lope Azkona barberarenera egin bide zuen ihes, Tristanen zapatari-tailerraren parean baitzen, baina Tristanek, gibeletik zerraiola, Loperen atarian puñal ukaldia eman zion bizkarrean, eta berehala hil. Ordurako jendetza bildua zen inguruan, baina hiltzailea ziztuan atera zen ihesi, eta Santa Zezilia elizan, sakratuan, babestu. Aguazilak elizaren babes sakratua kontuan hartu gabe atera bide zuen tenplutik.

Xabat Hualde, sortzez heletarra, 14 urterekin etorri zen Iruñera, eta beste hainbat heletar ageri dira prozesuan. Xabaten heriotzaren ondoren, Heletako senideek Maria Arkia bera izendatu zuten familiaren ordezkari epaiketan. Deigarria da Pirinioez bi aldeetako nafarrak eta eskribauak Nafarroako erresumaz mintzo direla, ordurako bakoitza errege desberdinen menpe daudela alde batera utzita.

Gertatutakoa ikertu nahian, Juan Igal eskribauak 1585eko martxoaren 18an Katalina Olleta Iruñeko biztanleari egin zion galdeketa. Kontatu zue-
nez, Maria Arkiak berak Xabat eta Tristan ikusi omen zituen eztabaidan
lehenaren ataurrean eta, hilketa gertatu baino lehentxeago, neskak lehen-
gusuari Tristanekin hizketan ari izatea leporatu omen zion, auzokide guztiek
entzun eta ulertzeko moduko hitzez:

(1) alqueric çau de bellaco villau batequi! (62v)⁴

Segur aski eztabaida osoa eta galdeketak euskaraz gertatu baziren ere,
hori da euskaraz jasotako eta euskarari egindako erreferentzia bakarra auzi-
bidean. Maria Arkia heletarra zen seguru asko, eta lehengusuari euskaraz
egin zion. Ez dirudi lekuko iruindarrak eta, berak dioenez, auzo osoak hitzok
ulertzeko trabarik izan zutenik, halere.

* * *

Pasarte hau, beraz, heletar jatorriko neska Iruñeratu batek esan zuen, eta
iruindar baten ahotik jaso zuen Juan Igal eskribauak. Nongo eta noren eus-
kara jasotzen duen esatea, beraz, ausartegia da.

Partitiboaren erabilera aipatzekoa da. Moduzko zentzua du, eta ohikoa
da partizipiotik kanpo hizkera askotan, *isilik*, *goserik*, *gazterik*, *gordinik* edo
tristerik bezalakoetan, besteak beste.

Soziatiboko *-reki* aldaera sarri ageri da XVI. mendean Nafarroako erdial-
dean, baina Iruñean agitutako justizia auzibideetan txandaketa dago, nahiz
eta sudurkaririk gabeko forma dirudien ohikoena: *orrequin* ageri da 1535ean,
baina *maynguequi* 1563an, *mutilarequi* 1596an eta *orrequi* 1612an, eta Be-
riainen lanean ere *-reki* da nagusi, baina bestekotik ere badu (Reguero,
2017, 577). Reguerok (2015, 593) azaltzen duenez, sudurkaririk gabeko
soziatiboa hegoaldeko goi-nafarreraren ezaugarria da lehen testuetarik⁵, bai-
na ez bide da nafarrera osoarena, eta bai, ordea, nafarreraren eremutik lan-

⁴ «Que en romançe quieren dezir: con berguença estays con un bellaco villano como ese» (62v).

⁵ Izan ere, Iruñeko justizia-auzibideetan XVI. mendean dagoeneko badugu. Besterik da eztabai-
datzea XVI. mendeko Iruñe aldeko euskarari «hego-nafarrera» dei diezaiokegun, Bonapartek XIX.
mendean definitutako euskalkia eta asmatutako terminoa izanik.

dakoa ere; ekialderagokoa (cf. Camino, 2003a, 446). Nafarroaren mendealdean ere bada garai berriagoetan, Hiriberri Arakilgo predikuetan (Salaberri Zaratiegi & Urrizola, 2008) eta berrikiago Ultzaman, Anuen, Atetzen (Ibarra, 1995) edo Sakanan (Erdozia, 2001, 240). Nafarroa Behe-rean, beste aldaera zenbaitekin batera, *-ki* ere izan da; Etxeparek, esaterako, badu (Camino, 2008, 146), eta Amikuzen ere badugu XVIII. mendeko testuetan, forma sudurkaridunarekin lehian (Camino, 2016, 106). Bestalde, *-kila* dago Etxauz baigorriarraren gutunean (Mounole & Lakarra, 2018, 424), baina ez dezaket esan zein zen Heletako egoera sasoi hartan honi dagokionez. Forma sudurkariduna gabea baino berriagoa dela pentsatuta ere (FHV § 5.10; Gómez-López, 2005, 275; Santazilia, 2013, 270 *pace* Trask, 1997, 202), dauden lekukotasunik zaharrenetan dagoeneko agertzen da.

Gatozen aditz morfologiara. Ageri den adizki bakarra, *çau*de, balizko **z*agode batetik heldu da, baina ordurako bokalen arteko hots belarraren galarak eta bi bokalen disimilazioz gertatutako *o > u* bilakabideak gauzatua dirudi Nafarroa Garaian, baita Beherean ere (cf. Camino, 2008 eta bertako adibideak). Besteak beste, Larrasoñan 1606an hala da, Ezkurraren olerkian 1609an ere bai, baita Arantzan ere 1669an. *Çaute* dago pluralean 1566an Eugin. Aresoko erlijio testu datarik gabeetan, baina, *gaode* dago, eta *çaudena* ere bai *çaudena*-rekin batera (adibide guztiak *apud* Reguero, 2017). Aresoko testuak noizkoak diren ez dakit baina, otoitzak direnez gero, idatziz jaso ziren garaikoa baino hizkera arkaikoagoa isla dezaketela pentsatzea ez da zentzugabekeria (cf. Ariztimuño, 2016, 23).

Hiztegiari gagozkiola, *ahalke* hitza ohikoa da Nafarroa Garaiko testuetan, *alke* formapean gehienetan (cf. OEH s.v. *ahalke*), eta hasperenarekin Behe-rean. Gainera, garai arkaikoan ez da 'lotsa' adiera horrekin ageri. Auzibide zenbaitetan dagoeneko bada, hala nola 1538ko eta 1594ko Iruñeko banatan, eta geroagoko testuetan ere erruz kausitzen da. Ez dezaket ziur esan, baina badirudi aldaera hau gehiago ezkontzen dela Nafarroa Garaiko formekin, Heletan garaian izan genezakeen forma hasperendunarekin baino. *Villau* mailegua ere, Erdi Arotik gauzaturik datorkigun bokal arteko sudurkariaren galerarekin (cf. FHV § 15.2), lehen testuetarik dugu: Lepuzaingo 1653ko auzibide batean, eta Isastiren errefracuetan esaterako, eta beste hiz-

keretan ere ageri da, nahiz eta *bilau* ere baden Pirinioez iparraldera (cf. OEH s.v. *bilau*). Amaitzeko, *bellaco* dugu irain gisa. Aski erabilia da Nafarroan, lehen testuetarik. Auzibideetan franko ageri da: Iruñean 1529an, Idotzinen 1541ean eta 1558an, Etxalekun 1545ean, Iruñean 1563an, Orotz-Betelun 1598an, Otsagabian urte berean, Lesakan 1609an, Goizuetan 1633an eta Altsasuko beste batean 1645ean. Beriainek ere badu (adibide guztiak *apud* Reguero 2017).

Ematen du, beraz, hemen jaso den euskarak Iruñekotik gehiago dukeela Heletakotik baino, batez ere hiztegiari eta aldaerei so, baina ezin erabat ziur egon.

3.2. Urdiain, 1597 (NEAN 12756)

Auzia hamar urte lehenago abiatu zen. Urdiaingo Migel Bengoetxeak beste zenbait urdiaindar, bakaikuar eta altsasuar salatu zituen, ia heriotzaraino egurtu baitzuten. Gertatutakoaren hainbat ikuspegi daude, baina hona Bengoetxearena.

1587ko urriaren 18ko gauean, ohatzean zetzan ordurako Bengoetxea. Alboko etxeoandrea kexaka entzun, eta zer berri zen galdetzean, salatuak Juan Larreta harginaren etxera joan zirela esan zion, bertan zegoela Baltasar, salatzailearen anaia apaiza, eta hari gaizki egin nahian zebiltzala. Migel, arropa jantzita, karrikara abiatu zen makila eskuan anaia defendatzera, baina ez zuen iskanbilarik antzeman inon. Etxera bueltan, ordea, salatuak topatu, eta eztabaidan hasi haiekin. Irainek eta tirabirek borrokari eman zioten bide eta, nonbait, Bengoetxearen hitzen arabera betiere, arkabuzez tiro egin nahi izan zioten. Bengoetxeak, haatik, tiratzaileari heldu eta tiroa huts egin zezan lortu zuen, baina aurpegia estali zioten eta labankadak, kolpeak eta lantza ukaldiak jaso zituen. Makila baliatu izanak salbatu zukeen, baina larri zaurituta eta odolatan gelditu zen. Herritarrek, iskanbila eta arkabuzaren tiroa entzunda, kalera jo zuten, eta erasotzaileek ihes egiteko aukera baliatu. Herritarrek bertaratu ahala, erasotzaileak berriz inguratu ziren hara, deus ez balekitez bezala, eta errugabe itxurak eginez.

Bitartean, Katalina Zubiri, Migel Bengoetxearen 32 urte inguruko emaztea, Maria Asensioekin zen etxean. Tiro hotsa entzun zutenean kanpora

atera, eta Migeli gertatzen ari zitzaiona ikusi! Emazteak erreguka zioen ez ziezaiotela senarra hil. Pedro Zangituren emazte Grazia Martinezek Juan Arraioz komisarioari 1587ko abenduaren 15ean egindako deklarazioan kontatu zionez, etxetik tiroa entzun eta leihora atera zen. Ez baitzuen deus ikusi, lotara itzuli zen, baina berehala entzun zuen Katalina Zubiri auhenka:

(2) ay! gora, gora, gendeac! yl dute hene senarra! (87r)⁶

* * *

Ez dakit zuzen Katalina Zubiri –hitzen esalea– eta Grazia Martinez –entzulea– urdiaindarrak ziren, eta seguru asko hitz horiek jaso zituen eskribaua ez zen herrikoa, baina dudarik ez dago urrun dagoela pasarteak ageri duen euskara egun Urdiainen baliatzen denetik. Bistan dena, laurehun eta hogeituro urteko aldeak baduke eraginik horretan, baina egon daitezke bestelako zergatiak ere.

Frankotan aipatu dugunez, *ene* espero dugu garai horretan euskararen eremu osoan Mounole & Lakarra, 2018, 424) eta, gainera, hemen bezala, Linschmann-Aresti legea betez (Reguero, 2017, § 3.3.2)⁷. Orobat, euskara nafar arkaikoan [e > i/_a] tankerako disimilazioak (*jendia*) ez ditugu kausitzen ahal, egungo Urdiaingo euskararen ohikoak badira ere, are XIX. mende erdialdean Bonapartek tokiko euskara jaso zuenean ere (Zuazo, 2010, 40-41).

Adizkia zaigu, menturaz, deigarrien. Gaur egun *dei* ‘dute’ dugu Urdiainen (Erdozia, 2001, 230), *dei* jaso zuen Bonapartek ere (1881, 35), Zuazok *dai* dakar (2010, 134), eta Irizarrek (1991, 135) biak, darabilen iturriaren arabera. Egungo formara ailegatzeko, nire ustez **dauee* batetik abiatu behar dugu, pluralgile pleonastikoa duen formatik: *dauee* > *deuee* > *debee* > *debei*

⁶ «Que quiere dezir: sallid, señores, que matan a mi marido» (87r).

⁷ Garai arkaikoan, halere, badira dagoeneko legea urratzen duten adibideak anitz leku eta hizkeratan (Mounole & Lakarra, 2018, 447), eta ondoko garai zahar eta klasikoan hausturak areagotuko dira, nahiz eta Nafarroak honetan gordetzailerak dirudien (Mounole & Gómez-López, 2018, 523).

> *deei* > *dei*⁸. Lazarragak *daue* du, Portalek *deue* (Knörr & Zuazo, 1998, 528) eta Gamizek dagoeneko *duei* (Knörr & Zuazo, 1998, 513). Edonola ere, hirugarren pertsonako pluralgilea *-ei* (< **-ee*) pleonastikoa da egun, Gamizen olerkietan bezala⁹, baina ez dago horren arrastorik aztertzen ari garen lekukotasunean, eta *duten* dago Altsasuko 1648ko auzian ere (Erdozia, 2005, 331). Forma zahartzat eta Arabarekin lotzen duen aldaeratzat *-e* jotzen badugu (gero *-ee* pleonastiko bilakatuko dena), eta ez *-te* (Trask, 1995 *pace* Lakarra, 2008), bi aukera ditugu: Urdiainen berrikuntza egina zegoela eta gero forma arkaikoa berriz sartu zela pentsatzea, edo eskribauak bertako hizkera zorrotz jaso ez zuela onartzea. Erdoziak (2005, 313) bigarren aukeraren alde egiten du eta neronek ere azaldu dut eskribauek testuak hitzez hitz kopiatzeko agindua bazuten ere, egon zitekeela prestigiozko aldaera bat eskribauen artean, horrelako pasarteetan nolabait islatzen dena (cf. § 3; Santazilia, 2017).

Bestalde, badago *yl dute* perifrasiaren ([partizipioa + **edun*]) eta egokitu zaion itzulpenaren denboran (*'matan'*) asimetria bat. Itzulpena orainaldian egin da, eta testuinguruari so, geroaldi hurbila ere uler daiteke, hots, 'hilko dute', edo 'hil behar dute'. Haatik, garai arkaiko eta zaharrean orainaldirako ([-*tzen* + **edun*] edo adizki trinkoak baizik ez dira ageri (Mounole & Lakarra, 2018, 434), eta geroaldirako, Mendebaletik kanpo, orainaldiko trinkoak (usu *-te/-ke* morfemekin), baita [aditzoina + **ezan-te/-ke*] bezalakoak ere, edo **iron* erroko formak, nahiz eta ordurako [-*tuko* + **edun*] den ohikoena hizkera gehienetan (Mounole & Lakarra, 2018, 436 eta hh.). Edonola ere, hemen dugun forma partizipiodunak ez dezake orainaldiko edo geroaldiko baliorik har: iragan burutu edo pluskuanperfektua baizik ez. Hori horrela, nire ustez, euskarazko formatik eman den erdal itzulpena ez zen, orduan ere, oso zehatza izan aditz-denborari doakionez.

⁸ Aldiz, *dai* formara ailegatzeko, aski dugu Landucciren hiztegi arabarrak ere baduen *au* > *eu* urratsa kontuan ez hartzea.

⁹ *-ee* > *-ei* (edo *-ai*), eta ez *-ie* (edo agian *-ee* > *-ie* > *-ei*), gaur egun Oñatin ere gertatzen da zenbait adizkitan; beraz, zonalde horretako ezaugarria dateke (Altuna, Elortza & Zumalde, 2014). Orozkon ere badago, dena dela (Ulibarri, 2008, 201).

3.3. Uxue-Pitillas, 1598 (NEAN 309509)

Orain gutxi arte, Uxue XVI. mendean herri euskalduna zela esateko ebidentzia zenbait bagenituen ere, ez genuen bertako hiztun batek ekoiztako euskarazko testurik, 1581eko prozesu batean pasarte labur bat agertu zen arte (cf. Monteano, 2017, 178; Santazilia, 2019). Orain beste hau agertu da, aurrekoa baino luze eta aberatsagoa, dudarik gabe.

Pitillasko Martin Zuriak eta bere artzain Pedro Villafrancak Uxueko eta Pitillasko alkate, zinegotzi eta igurainak salatu zituzten bere ardi eta ahari saldoari behin eta berriz kalte egiteagatik, eta zenbait abelburu hil eta ebas-teagatik. Antza denez, Uxueko eta Pitillasko hiribilduek akordioa zuten lur komunalak bi herrietako biztanleek erabil zituzten, baina eskubide hori baliatu ahal izateko, biztanle titulua edukitzea ezinbestekoa zen. Zuriak eta Villafrancak horretarako eskubiderik ez zutelakoan eraso zioten lehenaren aziendei. Bistan denez, salatzaileek eskubide hori bazutela zioten.

Martin Zuriak ez bide zuen auzo-eskubiderik, ez baitzuen emazterik ez ondasunik, eta aita oraindik bizirik baitzuen. Pedro Villafranca ez zen bertan sortua: Iparraldekoa zen (Milafrangakoa, deiturari so?), baina Tebasko emakume batekin zegoen ezkondua eta Cortesko markesaren jauregian bizi zen Pitillasen. Gainera, zerga guztiak pagatzen zituen, eta herrian erabat bertakotua zegoen. Bestalde, alkateek ez zuten garbi abereak norenak ziren: Villafrancarenak, Zuriarenak, edo bienak nahaste.

Esan bezala, bi herrietako igurainek, alkateen eta zinegotzien aginduz, zenbait egunez abere zenbait hil zituzten, foruak baimentzen zuen kopurutik goiti, baita makilaz kolpatu eta komunaletatik uxatu ere. Gainera, gau euritsu batean, abere zenbait inguratu zituzten eta, izaturik, kabalak amildu eta urak eraman zituen. Hori aski ez eta Zuriak gau bat edo beste ziegan pasatu behar izan zuen alkateen aginduz.

Erasoaldi horietako bat da guretako garrantzitsua. 1598ko maiatzaren 13an Uxueren eta Pitillasen lur komunaletan zebilen Zuriaren artaldea, Santo Domingoko baselizatik gertu, Donemondo eta Sabasan aldean. Uxueko alkateak bi igurain uxuetar igorri ditu, Bernart Ganboa eta Pedro Makirriain «Lerga», ganadua bertatik igortzera eta zenbait buru akabatzera.

Hiru artzain ziren bertan: Pedro Uztarroz Pitillasko Juan Aldekoren artzaina batetik, Pitillasen bizi zen Juan Salaberri bestetik, eta Oliber Soroeta buruenik. Azken hau Salaberriren erdi-anaia bide zen, eta Zuberoatik etorria zen bisitan, hura ikustera.

Juan Huarte eskribauak 1598ko maiatzaren 20an 26 bat urteko Oliber Soroeta zuberotarra galdekatu zuen, beste hainbat lekukoren artean. Gazteak kontatu zuenez, iluntzen ari zuen. Ahariak gordeak zeuden orduko, eta arkumeak gordetzen ari. Bi igurainak bertaratu ziren, batek arkabuza eta besteak lantza eskuan zutela. Bi ahari hartu zituzten, eta lekukoak ezin izan zuen ongi entzun Uztarrozi esan ziotena, urrunxko baitzen, baina, dirudie-nez, orduan bi ahari hartuko zituztela esan, eta biharamunean bi axuriren bila itzuliko zirela gaineratu zuten. Esan eta egin. Eguna argitu baino lehen han ziren bi igurainak armaturik, bi axuri hartzeko eta artaldea Beireko lurretara uxatzeko. Uztarrozek esan zien egoteko apur batez, Juan Zuria bertaratu arte, baina igurainek aginduak bete behar zituztela egin zioten arrapostu. Uztarrozek abereak hiltzeari bederen uko egin ziezaioketela gaineratu zuen, eta igurain lantzadunak, orduan, honakoa esan:

(3) alcabuz aldibat (52r)

Arkabuza zeramanak hala ihardetsi zion:

(4) Arcabuzas es; estiot arcabuzau emanen. Estate gure probechu arcabuzetara etorri bagaytes (52r)¹⁰

Nonbait, lantzadunak arkabuza erabili nahi izan zuen, baina suzko arma zeramanak, zentzu handiz, berehala ondorioztatu zuen armetara jotzeak ez ziela onurarik ekarriko.

* * *

Beste behin, ez da erraza nongo edo noren euskara ageri den asmatzea. Ekoizle uxuetarrena?, entzule zuberotarrarena?, eskribauarena? Zuberoako euskararen historiaz gehiago dakigun neurrian (Padilla-Moyano, 2017), ez dirudi pasarte hauek Maule aldeko euskara islatzen dutenik, baina zuber-

¹⁰ «Que bueltos en romance quieren dezir: con el arcabuz no; el arcabuz no le dare, que no sera nuestro probecho si benimos a los arcabuces» (87r).

tarrak ongi ulertu zituen Uxueko igurainen hitzak, eta Huarte eskribauak ere ongi jaso, zuberotarrarengandik.

Fonologian, aipagarria da euskararen eremu osoan kausitzen ahal den txistukariaren ondoko herskariaren ahoskabetzea, *estiot* edo *estate* adizkietan. Horren ondotik, gainera, ez adberbioa apikaritu egin da segur aski, herskariaren aurrean (cf. honetaz § 3.7. atalean esana). Zailagoa da bakarririk ageri den *es* adberbioaren grafiaren zergatia aurkitzea. Badira *es* dakarten bestelako testuak ere, garai bertsean, 1598ko Etxauriko auzibide bat konparazione (Santazilia, 2015, 129 eta hh.). Kontu fonetikoa baino gehiago, adizkiari atxikirik ageri diren *es* horien analogia grafikoa izan daitekeela uste dut.

Instrumentalak ere *-s* du testu honetan, eta izan daiteke apikaria; izan ere, Nafarroan lehen testuetarik ageri zaigu, *-z*-rekin batera (cf. honetaz § 3.7. atalean esana). Gainera, instrumentala bere funtzio nagusian ageri zaigu: instrumentua adieraztekoa, gaur egun hiztun frankok sozietiboa lerabilketen lekuan. Instrumentua adierazteko sozietiboa baliatzea ez da fenomeno zaharregia, segur aski. Morfema instrumentalaren funtzio semantikoaren galeraren azken ondorio, hain zuzen. Igartua & Santazilia (2013) lanean proposatu genuenez, morfema instrumentalak konpainia adierazten zukeen jatorrian, eta emeki instrumentua adieraztera ere lerratuko zen. Hurrengo urratsean instrumenturako espezializatu, eta konpainiarako komitatiboa sortu zatekeen (*-kin* edo *-gaz*). Garai berrietan, berriz errepikatu zatekeen [konpainia → instrumentu] bilakabide semantikoa, *-kin/-gaz*-ek *-z*-ri gelditzen zitzaion funtzio instrumentala ere bereganatuz. Hizpide dugun garaian, bistan dena, prozesu hori ez zegoen horren aitzinaturik. Beste alde batetik, adlatiboak ez du amaieran *-t*-rik. Garai horretako testu nafarretan hori da aldaerarik hedatuena, baina badira Nafarroa erdialdeko lekukotasun herskaridunak ere XVI. eta XVII. mendeetan, Barasoainen, Irunberrin eta Untzuen kasu (Reguero, 2017, 586).

Artikularik gabeko predikatua da *gure probechu*. Gaztelaniazko testu zaharretan oso ohikoa da [ser (algo) provecho (de alguien)] egitura, gaur egun *provecho*-ren aurretik *de* postposizioa paratzea ohikoagoa izanik ere. Euskarazkoa, beraz, erdaratiko kalkoa da segur aski. Dena dela, *probetxu* lehen

euskal testuetatik ageri bazaigu ere, OEHk (s.v. *probetxu*) ez dakar forma absolutibo artikulurik gabearen erabileraren adibiderik. Artikuluaren agerriera-testuinguruak hedatu egin dira garai historikoan, eta Ekialdea izan da honetan gordetzailen (Manterola, 2011; 2015; Mounole & Gómez-López, 2018, 500). Nafarroako testu zaharretan ere badira adibideak, eta franko *probetxu* hitzarekin, usu forma artikuludunarekin batera¹¹. Urrutirago joan gabe, Beriainek baliatzen du. Ezin dugu baztertu, hala ere, artikulurik eza jatorrizko gaztelaniazko egituraren eraginez gertatu izana. Horrekin batera, lehen graduko artikulua dugu, nire ustez, *arcabuzau* forman; izan ere, *el arcabuz* itzuli da gaztelaniara, eta ez *este arcabuz*. Inoiz euskararen eremu osokoak izan dira horrelako artikulua (Mitxelena, 1979, 392 eta hh.; Trask, 1997, 199; Manterola, 2015, 27 eta hh.), eta euskara arkaikoan ere hala da hein batean. Mounolek eta Lakarrak (2018, 421-422) diote Nafarroan *-ori* dela gehienik edireten dena, eta ez hainbeste lehen gradukorik, baina badago, esaterako, Beriainen euskaran (Manterola, 2015, 800), 1506ko Uitziko ezkontza fedean, Eugiko auzibide batean 1566an, Bustamanteren erromantzean 1656an, 1729ko sermoian... (Reguero, 2017, 81, 138, 259, 328)¹².

Aditz morfologiaren aldetik dira pasarteok interesgarrien. Geroaldia adierazteko bi forma ditugu: bat galdua dagoeneko, eta bestea egun oraindik baliatzen dena. Euskararen garai arkaiko eta zaharrean geroaldia adierazteko orainaldiko adizki trinkoak kausitzen ahal dira euskalki guztietan (*-te/-ke* morfemadunak gehienetan), baita [aditzoina + **ezan-te/-ke*] beza-

¹¹ Manterolak (2015, 406) dioenez, subjektua ongi ainguratua egoteak eta erreferentzialtasun altua izateak predikatuak artikulua hartzea ekar dezake. Hemen, bistan denez, subjektua erreferentzialtasun apalekoa da (*arkabuz ematea*) eta, beraz, predikatuak artikulurik ez hartzea gertagarriagoa dateke.

¹² Betiere, gogoan izanik erakusle edo artikulua baten aitzinean gauden ez daitekeela kasu guztietan erraz ebaz. Ratkusek (2010, 246) 'artroide' deitzen die erakusle prototipikoaren eta artikuluen artean kokatzen diren horiei. Funtzio bereziak izan ohi dituzte: 1) Determinazioa indartzea; 2) Indibiduaizoa; 3) Klase orokortzea; 4) Identifikazio objektiboa; 5) Sinkretikoak diren klase nominalen oposizio morfosintaktikoak indartzea; 6) Erreferentzia anaforiko adierazkorra/peioratiboa. Horiei begira, hala ere, ez da erraza hemen zein funtzio izan dezaketen argitzea. Edonola ere, funtzio deiktikoa galdu duen morfema da dagoeneko (cf. Manterola, 2015, 131-135).

lakoak ere, edo **iron* erroko formak. Haatik, egungo moldea –aditzari geroaldiko aspektu marka gehitzen diona– da ohikoena hizkera gehienetan (Mounole & Lakarra, 2018, 436 eta hh.). Hemen adizki trinkoak molde arkaikoari eusten dio, orainaldiko aditza eta *-te* morfema erabiliz geroaldiko zentzuan (*date*). *-te/-ke*-dun forma trinkoak Beriainen testuan eta Iruñeko 1609ko poesia sariketako olerkietan badaude (Mounole & Gómez-López, 2018, 512), baita Uitziko ezkontza fedean ere XVI. mende hastapenean, Sueskunek itzulitako Henrike Borboikoaren omenezko bertsoetan, Santsoainen 1594an eta Muruzabalen 1605ean (*apud* Reguero, 2017, 82, 173, 184, 195, 244). Adizki perifrastikoak, ordea, geroaldiko aspektu markadun aditz nagusia du (*-en*, Ekialde zabalean espero bezala *-n* amaierako aditze-kin), ohikoa zeinahi euskalkitan lehen testuetarik. Beste alde batetik, geroaldia markatzeko *-te* morfema dugu; ez *-ke*, eta are gutxiago *-teke* pleonastikoa. Garai arkaikoan *-te* espero dugu *izan* erroko monopertsonalekin, nahiz eta hasia den leku horretan *-ke* agertzen, eta are *-teke* ere (Mounole & Lakarra, 2018, 431; Mounole & Gómez-López, 2018, 507). Ez dirudi, dena dela, Nafarroa berrikuntzan aitzindari izan zenik, nahiz eta Elizalderen 1609ko olerkian dagoeneko, edo Beriainen lanean, *-teke* izan. *Bagaytez* adizkiak, bestalde, *-z* pluralgilea hartu du dagoeneko. Mounolek eta Gómez-Lópezek (2018, 506) diotenez, garai zaharrean eta Mendebaldetik hedatu den berrikuntza da hori, nahiz eta lehenagotik baden, eta bereziki lehen pertsona pluralean, hemen bezala.

Orobat, baldintzaren protasirako XVI. mendean ohikoen dugun perifrasiageri da oraindik: **edin* errodua (Mounole & Lakarra, 2018, 443). Horrelakoak, beraz, ohikoak ditugu XVI. mendeko Nafarroa Garaian: Zufiko ezkontza fedean bada, Otsagabiko 1598ko prozesu batean ere bai, eta oraindik bada arrastorik 1729ko sermoi batean, baita Elizalderen doktrinan ere (Reguero, 2017, 99, 145, 329, 636). Dena dela, horrelakoak aditsoinarekin baliatzen badira ere, hemen dagoeneko *-i* partizipioa ageri da. Gauza jakina da *-i* partizipioa lehenago sartu zela *-tu* baino, indikatibotik kanpoko moduetan. XVI. menderako aski sartua dago, baina oraindik badira *-i* gabeko adibideak edo txandaketak Nafarroan, are hurrengo mendeetan ere (Mounole, 2007, 85). Aldiz, *-tu* partizipioa ez da, XVI. mendean bederen, indikatibotik at erabiltzen (Reguero, 2018, 590). Bestalde, apodosian, ares-

tian aipatu bezala, *-te-dun* forma trinkoa dago. Mounolek eta Lakarrak (2018, 443) diotenez, apodosian [*-tuko + izan/*edun*] egitura ohikoena izanik ere, badira *-te-dunak* ere, Etxepareren euskararen esaterako.

Aditz morfologiari amaiera emateko, aipa dezadan labur *estiot* adizkian *-i(n)-* erroa dugula. Garai horretan **eradun* erroarekin ageri da lehian. Nafarroan ez dirudi beti errook banaketa osagarrian dauden, zenbaitetan autore berak bietarik erabil baitezake, are adizki bera islatzeko ere (Mounole, 2011, 137-138; Reguero, 2017, 600 eta hh.)¹³.

Sintaxiaren alderditik ez da ezaugarri aipagarri askorik. Nahi bada, ezeztapenaren hurrenkera gaur egun darabilguna dela esan daiteke. Garai arkaikoan oraindik kausi zitekeen [aditz nagusia + *ex* + aditz laguntzailea] hurrenkera perpaus nagusietan. Salaberri Izkok (2018) erakutsi duenez, Ekialdera jo eta denboran aurrera egin ahala, [*ex* + aditz laguntzailea + aditz nagusia] gailenduz joan zen, eta Nafarroan ia hori baizik ez da ageri, baina Etxepareren lanean eta Amenduxen olerkian oraindik bada hurrenkera zaharraren alerik. XVII. mendean Errazkingo apaizak ere eman zuen horrelako bat (ConTAV, 108)¹⁴.

Lexikoari so, arestian aipatu *provechu-z* gain, *alcabuz aldibat* esamoldea da aipagarri, baita *arcabuz/alcabuz* binomioa ere. Bigarren aferari dagokionez, ohikoa da txandaketa gaztelaniaz (DRAE s.v. *alcabuz*), baita euskaraz ere (OEH, s.v. *arkabuz*). *Arkabuz aldi* esamoldearen esanahia ez da, haatik, horren garbia. Nire ustez OEHren (s.v. *aldi*) ‘sesión’ adierarekin egon daiteke loturik, ‘arkabuz-tiro edo kolpe’-ren zentzuan. Hala balitz, aise lot dai-

¹³ Berriki Reguerok (prestatzen) defendatu du, beste batzuen usteen kontra (*pace* Lakarra, 2011), *-i(n)-* dela forma berria eta **eradun* zaharra, baita berrikuntza Nafarroaren hegoaldetik edo Gipuzkoatik hedatu bide zela ere. Aski hegoaldekoa den testu honek mesede egiten dio hipotesi horri, baina, bistan dena, ez da froga guztiz erabakigarria.

¹⁴ Mitxelenak (1978, 224) XVIII. eta XIX. mendeetako Gipuzkoaz mintzo, testuaren kutsu literario eta jasoarekin lotu zuen bi hurrenkeren arteko lehia. Testu jasoek hurrenkera zaharraren adibide gehiago bide dituzte, eta berria baizik ez daiteke kausitu hizkera arruntagoa darabiltenen artean. Bistan dena, ezin daiteke hori huts-hutsean eta bere horretan XVI. mendeko Nafarroara ekarri, baina baliteke aztergai dugun garaian ere ahozkotik urrunago dauden testuak, honakoak ez bezala, ordena zaharraren gordetzailerik izatea beste zeinahi bainoago.

teke *ukaldi* (**ukan* + *aldi* ?) hitzarekin, *-aldi* hori eta honakoa berberak badira (cf. OEH s.v. *ukaldi*, lehen bi adierak). Aldiz, (*u*)*k-* gabeko aldaerarik ez da ageri OEHn, baina bada 1598ko Otsagabiko prozesu batean zentzu berbera izan dezakeen *-aldi* bat: *nic ylarrozaldi bat emanen nioque bellaco çarrari* (Santazilia, 2015, 125). Horrek ‘astinaldi’-ren zentzua du (< **inarrosi* + *aldi*). Aezkoan, esaterako, *ilarrosaldi* baliatzen dute egun ere gaztelaniaz, etxe bati garbiketa sakona egin behar zaionean; hau da, astinaldi bat behar duenean (gaztigua, I. Camino).

3.4. Nagore, 1599 (NEAN 71707)

Prozesu luze eta mamitsua da honakoa, bereziki aberatsa euskarazko pasarteetan, baina baita antroponimo, toponimo eta oikonimoetan ere, inork inoiz ikertu nahi baditu. Dena dela, pasarte batzuk ez dira ulertzen errazak, ikusiko dugunez.

Artzibarko euskarak bizirik iraun du orain gutxi arte (cf. Lekaroz, 2014). Gainera, beste kasu frankotan ez bezala, hainbat garaitako testigantzak ditugu. Hor dugu XVI. mendeko Arizkurengo ezkontza fedea (Satrustegi, 1992, 59 eta hh.), Asnozko 1636ko ezkontza fedea (ConTAV, § 5.2.3), edo Elizaldek Bonaparterendako itzuli doktrinak (Pagola *et al.*, 1996). Zuzeneko testigantzak jaso zituen Azkuek *Erizkizundi Irukoitza*-rako eta Artolak azken hitzunik grabatu (cf. Artola, 2006; 2007; 2010; 2011; 2012a; 2012b; 2013; 2014a; 2014b; 2014c).

Gatozen auzira. Migel Nagorek eta Maria Zalbak, Nagoreko biztanleak biak, Amador Uritz salatu zuten, haien alaba Juana Nagoreri egindako es-tuproagatik. Dirudienez, Juanak meza batean ezagutu zuen Amador, Saraguetan. Bi urtez bederen ibili zen Urizko Iribarrean sortutako mutila nes-katoaren atzetik, harekin larrua jo nahiz, baita ezkontzeko asmotan ere, agian. Neskak ez omen zuen baietzik erraz eman nahi; are gutxiago gura-soen baimenik gabe. Frankotan elkartu izan ziren, eta ez ziren gutxi izan hango eta hemengo festetan danbolin musikaz elkarrekin dantzan ikusi izan zituztenak, edo gordeka mintzatzen. 1595eko errege bezperan, akusazioak dioenez, mutilak Juanari bisita egin zion neskaren anaiek zeukaten etxean,

egun Itoizko urtegiaren urek estalitako Gorritzen. Gelan gakoiz itxi, eta bertan egin omen zituzten egin beharrekoak; ezkondu aurretik, edonola ere. Neskaren bi anaia, Eneko eta Martin, errekan hedatutako sare batzuk begiratzera zihoazela, Juana ohiko gelan ez zegoela ikusi eta, bila hasita, beste gelan harrapatu zituzten biak. Amadorrek, gainera, ba omen zuen neskatan aritzeko ohiturarik, edo hala zioten batzuek.

Mutil gazteak bere buruaren defentsarako hainbat bide urratu zituen. Ezkontzeko asmoa agertu zuen, baina nonbait ezin zitekeen orduan izan; arrebak lur puska bat ematekoa zion, baina egindakoa jakin bezain laster, atzera egingo zuen. Arrebarekin tratua konponduta, ezkonduko zen. Bitartean, errege bezperan Urizko Barberenean festan eta bandurriarekin kantuan aritu zela frogatu nahi izan zuen Amadorrek, eta ez bi legoaren bidea eginda, neskarekin Gorritzen. Gainera, frankotan saiatu zen erakusten Juana ez zela zirudien bezain neska bertutetsua, eta ibiltzen zela gizonekin.

1596ko martxoaren 23an Juan Huarte eskribauak egindako galdeketa, Eneko Nagorek, biktimaren beste anaia batek, Amador beste neska batzuekin ere ibilia zela erakutsi nahi izan zuen. Agoitzen zela, *arçai seme* (81r) zeritzoten mutil bati eta besteri aditu zien Amador neska batekin harrapatu zutela behin, zakila agerian.

Martin Nagorek, biktimaren anaia arestian aipatuak, Hualde eskribauari 1595eko errege bezpera hartan gertatutakoa kontatu zionean, errekan hedatutako sareei nola zeritzoten idatziz jaso zuen Huarte eskribauak:

- (5) unas redes q[ue] llaman *albaeta*, que havian echado al rio (53r)

Galdeketa berberean, hirugarren anaiak –30 urteko Migelek– kontatu zuenez, San Juan egunean Amadorrekin mintzatzera joan zen arrebak bidalita, gazteak neskarekin zein asmo zuen jakin nahiz. San Juan egunean ohi-tura baitzen, akusatua adaxkak jartzen ari zen etxeko atarian.

- (6) que en bascuence dixo se llaman *ostoac* (63r)¹⁵

¹⁵ Geroago gaineratu du eskribauak esaldi hau testuan. Ondorioz, galdeketa-aren amaieran berriz ere dator kopiatuturik, 63v folioan.

Akusatuaren eta neskaren anaiaren arteko elkarrizketan, Amadorrek esan zuen egindakoagatik ehun dukat pagatu behar bazuen, ehun eta berrogei ere emanen zituela. Migelek, ordea, hobe zuela arrebarekin ezkontzea, eta Amadorrek ezetz: pagatuko zuela pagatu beharrekoa, eta epaitegira jozteko esan zion Migeli:

(7) joan çaçue auçis (63v)¹⁶

Itaunketa horretan bertan 55 edo 56 urteko Nagoreko biztanle Maria Aietxuk, Santxo Nagoreren alargunak, Hualde eskribauari kontatu zionez, Amador eta Juana frankotan ikusi omen zituen dantzari, ahapeka eta belarriara elkarri mintzo. Arratsalde batez, eguzkia gorde berritan, bikotea mutilaren etxe aurrean ari zen solasean, apur bat ezkutaturik, baina denek ikusteko moduan. Herriko jendeak ezkondu behar zutela pentsatzen zuen, bestela iruzur egingen ziola mutikoak neskari. Hitz hauekin eman zion Maria Aietxuk Juanari kasu egiteko aholkua:

(8) ea, deamucho ari beguira! (64v)

Baina gazteek dantza uzteko eta gaztetasunaz eta ezkongabetasunaz gozatzeari uko egiteko asmorik izan ez, eta *calla, viuda, que moço y moça somos* (64v) erantzun zioten Maria Aietxuri. Berak, berriz, ihardetsi:

(9) enegatic or beguira (64v)

Lekuko berak esan zuenez, Amadorrek ohorea kendu ziola aitortu zion Juanak, eta horren haserre zegoen neskatoa, euskaraz maldizioka kontatu baitzion hori:

(10) lepo eçurra auchiric eldu al lisan(?)¹⁷ (65r)

Beste galdeketa batean, Juan Hualdek 1596ko apirilaren 30ean mutikoaren alde agertu zirenei egindakoan hain zuzen, bada euskarazko pasarterik ere. Urizko Martinezeneko Joanes Uritzek, 35 urteko mutikoak, bost hilabete lehenago Katalina Nagore izenekoa entzun zuen beste zenbaitekin so-

¹⁶ Hots, «que le llevasen por pleyto» (63v).

¹⁷ Irakurketa eta hitzen banaketa aski zalantzazkoa da. Ikus eztabaida aurrerago.

lasean Nagoren. Katalinak solas hartan zioenez, Juanak horrela aitortu zion Amadorrek ez zuela ukitu:

- (11) Jesus, nic estut ~~arequi~~ Amadorequi eguitecoric içandu¹⁸
egundayño (98r)

Arestian aitzinatu dugunez, Juana Nagorek ere bazuen gizonzale fama. Joseph Marban eskribauaren 1597ko martxoaren 7ko galdeketa batean, Juana Ibañezek, Artiedako Juan Beltranen zerbitzariak, egun batez Migel izeneko mutil bat, Juana eta hirurak belar moztera joan zirela kontatu zuen. Ustez lekukoa lo zegoela, arbola baten atzera joan ziren Juana eta Migel zirrikan aritzera:

- (12) Y se apartaron ambos adetras de un arbol que llaman *ariza*
en bascuençe, y en romançe le llaman roble (253r)

Dirudienez, Juana Ibañez zerbitzaria ez zen sobera ados gelditu Marban eskribauak jasotakoarekin, eta salatzaileen prokuradoreak dioenez, biktimaren anaia Martini gutuna bidali zion –berak zuzenean idatzi zuen dudazkoa goa da–, aitortzan esandakoagatik damua agertuz. Gutuna prozesuan gaineratu zen. Gaztelaniaz idatzia dago, baina bereziki interesgarria da garai hartako Artiedako neskame batek –edo bere ingurukoren batek– zuen gaztelania nolakoa zen jakiteko, urrunxko baitago eskribauak galdeketak transkribatzeko darabiltenetik. Horra testua (335r, 335v)¹⁹:

Señor Martin. En la esamina que hizieron en la Coaresma yo me examine. Yo e entendido que dixen yo que la mosa hermana de v. m. que he dicho que anduvo con un mosso en el soto apartado de mi y de no se que manera, yo no e examinado tal, sino lo que yo he dicho en la esamina es que ellos andubieron reportando. Y si es assi que en la esamina dise que yo e dicho que la mosa e visto con el moço apartado de mi y el uno sobre el otro, el examinador a puesto mas de lo que yo examinado; que yo no e dicho sino lo que esta arriba escrito. Y la mossas no a tubido nada por que yo se bien que comi dormia y

¹⁸ Testuan *icandu*.

¹⁹ Testu honen transkripzioa Peio Monteanok egin du.

comi andava siempre y no ofreciendo otro. De Artieda a 14 de setiembre año 1597.

Joana de Ybañes, moça²⁰ de Joan Beltran.

[Orriaren ifrentzuan, letrakera berberean] A Marti de Nago,
que dios goarde.

Juan Huartek 1597ko irailaren lehenean Juana Migel Nagore galdekatu zuen, Migel Gartxotenaren emazte eta Juana Nagore biktimaren ahizpa, hain zuzen. Errege bezperan Gorritzen anaiek harrapatu baino egun bat lehenago ere, Juana Migel etxeko atarian zegoela, Katalina Goikoa lehen-gusinarenean ikusi zituen Amador eta Juana, leiho batetik. Harrapatu zituztela ikustean gordetzen saiatu ziren, baina berandu. Han abiatu da ahizpa Goikoarenera: atek iltzez eta giltzez itxita egoki! Lekukoa Juanaren bila zebilela ikusita, honakoa esan zioten karrikan zebiltzan bi neskatok:

(13) or dago, or! (338r)²¹

* * *

Analisisira jo aitzin, desadan testu honek hainbat pasarte ilun dituela, Maria Aietxuren aitortzan batez ere, erdal itzulpena ments baitute gainera. Aietxuk Juanari esandako hitzak, (8)n eta (9)n jasoak, ongi irakurtzen badira ere, ez dira interpretatzen errazak. Hor *deamucho* hitzaren esanahia garrantzitsua da: ‘gehiegi’ edo ‘asko’ esan nahi duela uste dut (cf. gazt. *de a mucho*, *amuchar...*). DRAEren arabera Hego Ameriketako hitza da *amuchar*, eta *deamucho*-k ere bertakoa dirudi, baina euskaraz *deamutxoan* dago behin OEHN, (s.v. *deamutxo*) Peñafloidako kondearen ahotan, eta Penintsulako hitza ere izan zitekeen inoiz, nahiz eta guk ez dugun alerik aurkitu. Bestelako interpretaziorik ere izan dezake, eta OEHK dakartzan *demuntxo* edo *diamotxo* hitzen aldaera bat izan, hots, deabruaren txikigarri bat, Amadorri buruz ari. Hala balitz, Mariak Juanari emandako iradokizun gisa uler genezake (8), deabrutxoari arreta egiteko, alegia. Dena dela, gaztelaniatik datorkeena eta deabruari buruzkoa, biak dira hedadura urrikoak euskaraz, geroagokoak, eta Nafarroatik kanpokoak,


²⁰ Testuan *moca*.

²¹ «Que quieren decir: ¡Ay esta, ay!» (338r).

OEHren arabera. Hori horrela, guk *de a mucho*-tik heldu dela hobetsiko dugu hemen. Halaber, *begüira* hitzaren esanahi eta kategoria zehatza ere ez dago garbi. Nire ustez, aginterazko forma bat da, eta hainbat adiera izan ditzake: ‘arreta jarri’, ‘kontuz ibili’, ‘zain egon’, ‘zaindu, babestu, behatu, gorde’ (cf. OEH s.v. *begira*, *begiratu*, *begira edun*). Bigarrena aspaldi ageri da eta hedadura zabala du, baina ez du osagarria datiboan hartzen eta hirugarrenak, osagarria genitiboan nahiago badu ere, badu adibide datibodunik ere, nahiz eta lekukotasun zaharretan Mendebaldean bakarrik agertu. Nire ustez, lehen edo azken adierekin lotu beharko genuke honako hau; hots, ‘arreta jarri’ edo ‘zaindu, babestu, behatu, gorde’-rekin. Hori horrela, (8)n Mariak mutikoari arreta handiegia eskaintzen diola leporatuko lioke Juanak neskari. Bi gazteak Mariari arranguraturik, berriz dugu adizki hori (9)n, eta pasarte berriz da iluna. Ematen du ‘hor konpon’ edo gisako interpretazioa behar duela²²; edozein gisaz, *begiratu*-k ez ohi du osagarria absolutiboan eramaten.

Pasarte are ilunagoa da, nire ustez, (10)ekoa (cf. 1. irudia), bai irakurketari bai interpretazioari so²³.

1. irudia. Interpretazio iluneko pasarte, Hualde eskribauak Maria Aietxuri jasoa (NEAN, Errege Kontseilua, 71707, 65v)



Juanaren birao bat da, Amadorri buruz esandakoa. Lehen zatiak argiro dio *lepo eçurra auchiric*, baina gero hitzen banaketa eta zenbait karaktereren interpretazioa iluna da. Lehen bi grafemetan <es> edo <el> irakur daitezke, hots, ezezko adberbioa, edo beste zerbait. <el> irakurtzea hobetsi dut,

²² Cf. gaztelaniazko «ahí te las veas».

²³ Eskerrak eman nahi dizkiet Monumenta Linguae Vasconum taldeko kideei, bereziki Ricardo Gómezi, Joseba Lakarrari, Julen Manterolari, Urtzi Reguerori, Blanca Urgelli eta Eneko Zuloagari zalantza hauek ebatzi nahiz egin dizkidaten iradokizunengatik.

batetik, <s> grafema luzeagoa eta bertikalagoa izan ohi baita eskribau honen idazkeran eta, bestetik, eskribau honek berak ez adberbioaren ondoko herskariak ahoskabe jaso baititu (11)n ageri den *estut* forman bederen. Gainerakoan, <du> argi samar irakurtzen da, gero <alli> edo <aeli> izan dezakegu, eta ondorengo karaktereak berriz piztu dit zalantza. Karaktere hori <s>, <e>, <c> edo <l> izan daiteke. Nik <s>ren alde eginen nuke: gaineko lerroan dagoen *bascuence* hitzari so, sinesgarria dirudi. Bestalde, <an> aurrekoari itsatsirik egon daiteke, mota horretako <s> horren ondotik hutsunea utzi ohi duelako eskribauak, *bascuence* horretan berean ikus daitekeenez, besteak beste. Gauzak horrela, zein da pasarte ilun horren lehen hitza? *el* aditzoina? *eldu?* *eldua?* Ondoren <ll> dugula dirudi, baina <el> ere izan daiteke, eta *elisan* irakurri. Hori horrela, zer litzateke *elisan?* ‘ez lizan?’ ‘elizan?’ Erabaki bat hartu beharrez, ez dut *elisan* irakurri nahi izan. Batetik tenpluarekiko inongo loturarik ez du eskaintzen testuinguruak eta, bestetik, ezezko adberbioak <l> aitzinetik txistukaria galtzea (*ex lizan* > *elizan*) posible izan badaiteke ere, garai hartan eta genero berean Nafarroan ditugun adibide apurretan ozenez hasten diren adizkiek ez dute txistukariaren galerarik eragiten (cf. honetaz FHV, § 18.8). Hor dugu, besteak beste, Olatz-Txipiko 1596ko auzibideko *ex luela* (Santazilia, 2015, 123). Beraz, <ll> irakurtzea hobetsi dut. Horrela, *eldu allisan* edo *eldu allisan* formara ailegatuko ginatke. Bigarren hitzak adizkitik zerbait duelakoan, gutxienez bi aukera ditugu mahai gainean: *ai-* aurrizki botiboa izan genezake; hots, ‘ailitz’, urkariaren palatalizazioarekin (cf. Axularren *ailliotza* edo Lazarragak dituen *lloacen*, *lloaque* edo *balloa*), edo *al lisan*. Aurrizki botiboa bagenu, ‘heldu ailitz han’ uler genezake. Osagarria inesiboan leramake ‘heldu’ aditzak, eta horrelakoak Lazarragaren eskuizkribuan edo Portalen olerkian ere baditugu besteak beste. Etxeberri Ziburukoak ere badu adibide bat, baina Mendebalean nagusiago dela dirudi (cf. OEH s.v. *heldu*). Aurrizki botiboa Nafarroan Felipe Handiaren heriotzako kopletan baizik ez bide da agertzen XVII. mende erdian, eta horrezaz landa, Garibaik ere badu errefracu batean (cf. OEH s.v. *ai(t)-*)²⁴. Gainerakoan Pirinioez iparralderagoko hizke-

²⁴ Perutxoren kantako *Ay joat gaviraya* (TAV, 104) ere zerrendan gehitzeko modukoa izan daiteke menturaz, baina ez da gardena.

retakoa dela dirudi. Aurrizki botiboaren irakurketak, baina, badu bestelako arazorik. Aurrizkiak Hegoaldean duen distribuzio eskasari, agerrerak testu literarioetan ditugula gehitu dakioke. Bestalde, aditz trinkoekin azaltzen da maizenik, eta perifrasietan aditz oinarekin, hemen ez bezala.

Bigarren interpretazioak ‘heldu ahal lizan’ iradokitzen du. *Izan* aditzaren subjuntibo trinkoa geneukake, besteak beste Lazarragaren edo Maizterren lanetan duguna, EKCK erakutsi digunez. Hala balitz, *lizan* horretan garai arkaikoan oraindik bizirik dauden bi elementu ikus genitzake: 3. pertsonarako *l-* marka iraganean, eta **ezan* erroa iragana adierazteko, baina ahalararako *ahal* darabilten formak ez ziren garai arkaikoan espero; zaharrean hedatuko dira, baina *-tzen* aspektu-markarekin (Mounole & Gómez-López, 2018, 516-517). Bestalde, bi interpretazioek ‘heldu’ aditzaren esanahia dute arazo. Dituen esanahi ugarien artean (cf. OEH s.v. *heldu*), hainbatekin ezkon daiteke: ‘resultar’, ‘salir bien/mal parado’, ‘suceder’, ‘hallar(se)’... baina horien guztien distribuzio geografikoak ez du honekin bat egiten.

Bestelako aukerarik ere badagoke, baina horiek ere, ez erabat asegarriak. Orduko hizkeraren eta testuinguru zehatzagoaren faltan, ezin ebatz dezaket garbi pasarte horien esanahia une honetan, eta goazen aurrera.

Fonologian, desadan litekeena dela (11)ko *estut* formako txistukaria apikaria izatea, garai arkaikoan ez baita zaila horrelakoak aurkitzea herskari aurrean (/t/ bereziki) euskararen eremu osoan (FHV § 14.2), eta Nafarroako justizia auzibideetako euskal pasarteak ere ez dira horretan salbuespen. Garai arkaikoan Mendebaleko hizkeretan geroago orokortuko den txistukari apikari eta bizkarkariaren arteko neutralizazioa hasiberritan egonik ere, herskari aurrean ohikoagoa da (Mounole & Lakarra, 2018, 418). 1609ko Elizalderen olerkian baditugu dagoeneko *çatoste* edo *expagaysque* bezalakoak, ez sistematikoki, baina ezin jakin gurean kontu grafiko hutsa den. Ikusi, gainera, *expagaysque* forman, ez adizlagunak bizkarkaria atxiki duela. Ondoko autore zenbaitek ere bakanka badute horren adibiderik; hala nola Beriainek, edo Urdozko XVII. mendeko prozesu bateko pasarteek (Reguero, 2017, 556).

Izen morfologiaren alorrean, *ene* dugu lehen pertsonako izenordain posesiboa, garaiko Nafarroan –baita hortik kanpo ere– espero zitekeen bezala

(Mounole & Lakarra, 2018, 424). Bestalde, ez dago garbi (8)ko *ari* erakuslea den edo aurreko hitzaren postposiziotzat ulertu behar dugun. Zernahi gisaz, erakusleak ez du dardarkari azkarrik, (11)n dugun *arequy*-k ere erakusten duenez. Orobat, erakusleek ez dute *g*-protetikorik hartzen, XVI. mendean ohi bezala (Reguero, 2017, 571). Are XX. mendean ere, Artzibarren oso bakan kausi zitekeen horrelakorik, nahiz eta egon baden (Artola, 2010, 41). Deklinabidean, sozietiboa *-reki* da, sudurkaririk gabe. Nafarroan aise topa daiteke kidekorik egun: Erroibarren (Ibarra, 2000, 101-102), Ultzaman, Anuen, Atetzen (Ibarra, 1995) edo Sakanan (Erdozia, 2001, 240). Reguerok (2015, 593) azaldu duenez, sudurkaririk gabeko sozietiboa hegoaldeko nafarreraren ezaugarria da lehen testuetarik²⁵, baina ez bide da nafarrera osoarena, eta bai, ordea, nafarreraren eremutik landakoa ere, ekialderagokoa, batez ere (Camino, 2003a, 446). XVI. mendean ere forma hori ohikoa da Nafarroa erdialdean, eta Iruñean eta inguruetan txandaketa dago forma sudurkariarekin (cf. Reguero, 2017, 577, edo (1) adibidea lan honetan berean). Garai berriagoetan bi formak ageri zaizkigu Artzibarren, Urizko kristau-ikasbidean esaterako (Pagola *et al.*, 1996), edo Artolak egingako grabaketetan (cf. Artola, 2006 eta hh.), baina sudurkaria da nagusi²⁶. Baliteke instrumentala apikaria izatea *auçis* hitzean. 1536ko Arizkurengo ezkontza fedean, haatik, *-z* dago, nahiz eta ondoko lekukotasunetan, Urizko kristau-ikasbidean kasu, edo azken hiztunen ahotan, *-s* egon²⁷. XVI. mendean, ezkontza fedeetan, bietarik ageri zaigu (Reguero, 2017, 578)²⁸.

Aditz morfologian, partizipio pleonastikoa dugu *içandu* forman. Nafarroan bada halakorik, gutxienez 1596ko Iruñeko auzibide batean datorren *içandu zuen* batetik aurrera, eta frankotan geroago (Reguero, 2017, 591). Mounolek eta Gómez-Lópezek (2018, 503-504, 525) garai zaharreko berrikuntzatat dute pleonasmoa, baina hasmenta garai arkaikoaren hondarrean kokatu

²⁵ Cf. hala ere, «hegoaldeko goi-nafarrera» terminoaz 5. oin-oharrean esandakoa.

²⁶ Cf. Salaberri Zaratiegiren (2000, 897) mapa.

²⁷ Apikaria ere jaso omen da Artzibarren *Erizkizundi Irukoitza*-n (Camino, 2003b, 86-87).

²⁸ Beraz, nire ustez, Reguerok (2017, 578) berak ematen dituen datuen distribuzio geografikoa ez dator bat gero dakarren maparekin, 1750 aurreko egoera islatzen bide duen horrekin.

beharrean gaude datuei so²⁹. Bestalde, *joan* aditzaren erabilera iragankorra dugu, 'eraman'-en zentzua duena. XVI. mendean Etxeparek modu horretan darabil, eta Sunbillan 1597an ere ageri zaigu (ConTAV, § 5.2.5). OEHk (s.v. *joan* 3. adieran) Iparraldeko eta Nafarroa Garaiko autoreetan dagoela dio, eta hala da egun ere. Haatik, Nafarroa Garaiko lekukotasunik goiztiarrena dateke hau. *Çaçue* dugu testuan, eta garai arkaikoan *eçaçue*-rekin batera agertzen da. Goiz da, edonola ere, garai zaharrean Nafarroan eta Lapurdin hedatuko den *d-* ikusteko (Mounole & Gómez-López, 2018, 516).

Hiztegi aldetik aberatsa da auzibide hau, eta gauzarik deigarrienak baizik ez ditut iruzkinduko. *Egundaino* hitzari doakionez, OEHk (s.v. *egundaino*) dio Hegoaldeko testuetan ez dagoela adiera horretan XX. mendetik aurrera baizik kausitzerik, baina Lizarraga Elkanokoak badu. Edozein moduan, honек erruz aitzinatzen du Hegoaldeko lehen testigantza. *Eguitecoric* horrek 'tratu', 'negozio' edo 'arazo' esan nahi du, eta lehen testuetarik aski hedadura zabala du. Iluna da, ordea, erreka sare batzuei deitzeko *albaeta* forma, euskarazko hitza bada. Menturaz Mendebaldeko euskarari baliatzen den *albate* (< *albo* + *ate*) hitzarekin dago lotua, OEHk «Reja por donde pasa agua al molino» baitakar horren definiziotzat.

3.5. Oronoz, 1606 (NEAN 2144)³⁰

Antzinako Erregimenean Elizak aitoren seme-alabei parroketan eta kapilautzetan esku-hartze eta eskubideak ematen zizkien ardura, patroiz izendatuz. Hartara, familia aristokrata batek parrokia baten patroitzat bere esku zuenean, kargu eta benefiziodunak proposatzeko eskubidea zuen (bikarioa, organista, sakristaia, serora...)³¹. Horrekin batera, kontuak eramaten zituz-

²⁹ Nafarroatik (eta Gipuzkoatik) kanpo ere badira horrelakoak. Arabako euskarari idatziak daukekeen 1619ko Sevillako bertsoetan *yssandu* eta *egondu* ditugu, eta Portalek ere badu *egondu*-rik. Landucciren hiztegian, gainera, *erabildu*, *viçitu* eta *yldu* daude (cf. Ulibarri, 2011, 373).

³⁰ Prozesu honen aditzea, besteetan bezala, P. J. Monteanori zor badiot ere, hark Rosa Bueyri esker izan zuen horren berri.

³¹ Hori garrantzi handikoa zen; izan ere, sasoi hartan tokian tokiko elizak hamarrenak kobratzen zizkien herritarrei, eta horrekin pagatzen ziren benefiziodunen soldatak. Hori horrela, frankotan

ten, eta obrez arduratzen. Gainera, tenpluan jarleku berezia eta hilobia izateko eskubidea ere bazuten, baita euren armarri eta entseinak paratzekoa ere. Patroitzza herriak izan beharrean familia batek zuenean, maiz sortzen ziren tirabirak, eta ugari dira historian epaitegi zibiletan eta eklesiastikoetan gai honen inguruan ebatzitako auziak.

Honakoa ere eite horretakoa da. Pedro Bikuña Zozaia eta horren emazte Maria Arraioz Zozaia, Zozaiako palazioko jaun-andereak, Oieregiko parrokiako patroï bakarrak ziren, baita parrokia horri atxikitako Narbarteakoarenak ere. Auzitan da jakitea Oronozen eraiki berria zen eliza ere Oieregikoari atxikia zenetz eta, beraz, zozaiatarren patroitzaren meneko. Zozaiako jaunak eta andereak, bistan dena, baietz zioten, aspaldiko eskubideak agertuz bermetzat. Oronozko biztanleek, berriz, ezetz, Oieregiko patroitzza bera aski berria zela argudiatuz.

Gatazka horren erdian, 1606ko agorrilaren 6an, igandez, Pedro Bikuña Zozaia eta Maria Arraioz Zozaia Oronozera ziren, parrokia berrian kantatzekoa zen lehen meza aditzera, bertako patroitzat baitzituzten beren buruak. Legasako apaiz Pedro Agerre zen meza errailea. Meza hasita ailegatu ziren zozaiatarrak. Bi morroik senar-emazte kapareendako haritzeko jarleku berri bat zekarten, elizan leku berezian paratzeko asmoz.

Asmo horren kontra altxatu ziren Migel Ezponda Oronozko alkatea, Joanes Iturralde, Migel Barberena eta Petri Iturralde, oronoztarrak denak. Zozaiako aitoren seme-alabei elizan sartzea indarrez behaztopatu omen zioten. Bikuñak, orduan, kasu emateko erantzun zien, eta jarlekua elizan sartzeko esan; bertan jarriko zela, eliza horretako patroia baitzen.

Herritarrek, ordea, ez ziotela jarlekua sartzeko egin zioten arropatu eta, jarri nahi bazuen, bazirela jartzeko banku aski. Bikuñak berriz ihardetsi, banku arruntetan ez zuela jarri nahi. Bertaratuei gertatutako mespretxuaren eta tratu txarraren lekuko izan zitezeko eskatu zien kapareak, eta alde egin zuen elizatik emaztearekin, banku berria elizatik eta are kanposantutik landara utzita. Meza bukatuta, han dator Bikuña berriz. Orduan, eli-


aitoren seme-alabek euren senideak proposatzen zituzten parrokiako benefiziodun izateko, parrokiako hamarrenetatik zegokiena kobra zezaten.

zaren patroia zela berriz gogora ekarriz, Maria Honsari Oronozko serora izendatuko zuela esan zien bertan zirenei. Hura zen Oieregiko serora ere. Hori horrela, herritarrek ez zutela izendapena onartuko ihardetsi zioten, eta nahi zuen tokira joan zitekeela Jainkoa lagun, serora ere berarekin hartuta. Gertatutakoagatik, Zozaiako senar-emazte kapareek arestian aipatu herritarrek eta alkatea salatu zituzten.

Auzia abiatuta, Joan Zudaire eskribauak, besteak beste, Pierris Zozai 40 urteko lekuko oieregitarra galdekatu zuen, egun hartan elizan gertatutakoa kontatzeko, bertan baitzen meza entzuten. Bigarren aldiz galdekatu zuenean, 1606ko azaroaren 21ean, aurretik esandakoa berretsi zuen, baina Joanes 'Joanko' Iturraldekin Bikuñari elizan zein hitz esan zizkion gaineratu zuen bere aitortzan. Zoritzarrez, irakurgaitza da testua, eta ez da interpretatzen erraza.

(14) bay, çure begui orri huçico diego(?) o[...]hequi sarçera³²
(60v)

2. irudia. Interpretazio iluneko pasartea, Zudaire eskribauak Pierris Zozaiari jaso (NEAN, Errege Kontseilua, 2144, 60v)



Oraingoan herritarrei eman zieten arrazoia.

* * *

³² «que buelto en castellano quiere dezir: si, a su hojo le dexaremos entregar con esse assiento» (60v). Hemen *entregar* badator ere, hutsa dela dirudi. Aurrerago (61v) berriz eskaintzen da itzulpena, eta horretan *entrar* dator.

Esan bezala, laburra izanagatik ere, iluna da pasartea, eta beldur naiz ez ote dudan datozen lerrootan testua gehiago ilunduko, argitu baino.

Lehenik eta behin, *begui* da arazotsu. Amaieran ezabaketa bat izanik ere, irakurketa garden da. Lehen begiratuan, *b-* hutsa izan daitekeela pentsa daiteke, eta *segui* ('sehi') zuzendu³³. Horrek zentzia luke, kontuan hartzen badugu morroiek zeramatela elizarako jarlekua. Baina irakurketa horrek berekin dakartza bestelako arazoak. Itzulpenak *hojo* dakar, ez bakarrik aitor-tza honetan; beste lekuko zenbaitenetan ere bai, eta horrek *begi* irakurtzearen alde egiten du, baina orduan zentzuan datza arazoa. Erdal itzulpenean *a su hojo* 'a su voluntad' uler daiteke (cf. DRAE s.v. *a ojo*), baina hori euskaraz *cure begui orri* izatea arazotsua da, jatorrizkoa izanik, ez baitaiteke erdaratiko kalkoa izan. Ez diot, zoritxarrez, erantzun hoberik ediren honi³⁴.

Adizkia ere irakurgaitza da. Itzulpena ikusita, *diogu* espero genuke³⁵, singularrean, baina bistan da <g> aurreko grafema ez dela <o>, eta hondarrekoa aldiz, bai. Hala ere, <i> zerbait estaliz idatzi zela ematen du, eta menturaz eskribauak <i> ahaztu zuelakoan, horrela zuzendu zuen. Bestalde, puntu bat ageri da, eta beste <o> bat gero. Eskribau honek horrelako puntuak maiz darabiltza hitzen muga markatzeko eta, beraz, hor ezarri dut nik ere hitz-muga, bigarren <o> hurrengo hitzari egotziz. Bada balizko u > o irekidura bat. XVIII. mendeko Baztango testu batean *dugo* bat ageri da (Ondarra, 1982, 393), eta badira adibide batzuk XVIII. mendean Zaraitzun ere (Santazilia, 2016, 100), edo egungo Luzaiden (Santazilia, 2009, 245-246).

Bestalde, irakurgaitza den hitz bat ere badago. <h> irakurri dudan hizkia <l> irakur lezake beste norbaitek, baina badira itxura horretako <h>

³³ Hasperen zahar bat galdu eta haren tokian -g- epentetikoa geneukake. Ordurako posible zen, 1609ko Iruñeko poesia sariketan Ezkurraren lanean *aguáren* 'ahoaren' baitugu (baina *amená* 'ahamena' bertso berean), eta Elizalderenean *agotic*. Isastiren erretrauek ere *agoa* dute, eta *iguesi*. Dena dela, garai hartako testuetan, eta geroagokoetan ere bai, *aho* hitzarekin gertatzen da -g- nagusiki. Bestalde, OEHK (s.v. *sehi*) ez dakar aldaera *g-dunik* adiera horretan, baina bai 'ume'-ren zentzuan (s.v. *sein*).

³⁴ Iker Salaberrik iradoki dit gorputz edo norbanako osoari deitzeko erabilera metonimiko bat izan daitekeela «begi» hemen (cf. Madariaga, 2001, 403-404), eta zentzu ironikoa ere izan dezakeela.

³⁵ Ez du ematen **eradun* erroko adizki bat denik.

-ak ere eskribau horren kaligrafian; gainera, <l> irakurrita, ondoko grafemak, <e>-ren aurrekoak, ez du azalbiderik. Itzulpenak *con su assiento* dio, baina bistakoa da hor *jarleku* edo gisakorik ez daitekeela irakurri. Eskribau berak Martin Zozaia izenekoari egun berean (1606-11-21) egindako galdeketa *con esse* itzuli zen hitz hori besterik gabe (66v); beraz, baliteke irakurgaitz gertatzen zaigun zatia erakusle bat izatea: ez naiz ausartu, halere, zein izan daitekeen proposatzera, *orrequi* edo, hobe, *orrehequi* ez bada³⁶. Ez du ematen *-(t)xe* atzizkia proposatzeak (*orreche*) arazoa konpontzen duenik. Goizegi da *-reki(n)* > *-ki(n)* bilakabidea espero izateko, eta *orreche* bera ere arrotza da. Hondarreko aukera tarteko grafemak ezabaturik daudela onartzea litzateke, eta *ochequi* (hau da, *hokeki*) irakurtzea, pluralean. Dena dela, horrelako forma analogikoak Baztanen egun ohikoak badira ere (cf. Salaburu & Lakar, 2005, 68), are XVIII. mende erditik (Ondarra, 1982), ez daitezke zaharregiak izan.

Gainerakoan, *-ki* sozietiboa gardena da. Egungo Baztanen *-kin* da forma bakarra ezbairik gabe (Salaburu & Lakar, 2005, 69), eta hala da XVIII. mendean ere (Ondarra, 1982). Nafarroaren erdialdean horrelakoak ohikoak dira (Reguero, 2015, 593), baita ekialdean ere (Camino, 2003a, 446); gainera, Nafarroa Behereko testu zaharretan ere badago beste forma zenbaitekin batera (Camino, 2008, 146; 2016, 106); beraz, egon zitekeen inoiz Baztanen ere, nahiz eta ez dugun horren lekukotasunik³⁷.

Sintaxiaren alorrean, garbi dago *utzi* aditzak osagarritzat aditz-izen bat duenean, adlatiboan jokatzeko duela aditz-izen hori. OEHk (s.v. *utzi*) 3. adieran jasotzen du erabilera hau, dagoeneko Etxeparek eta Leizarragak badutena, baita lapurtera klasikoko autoreek ere. Nafarroako eta Iparraldeko egileen testuetan ageri da, eta Caminok (2003a, 450) Ekialde zabaleko berrikuntzat du egun³⁸. Nafarroan, Beriainek erabiltzen du, eta Aresoko otoitzetan ere badago XVII. mendean. 1743. urteko kokapen geografiko

³⁶ Hasperenduna izan zitekeela pentsatzea ez da zentzugabekeria. Beriainek, esaterako, badu *-hequi* (Manterola, 2015, 508).

³⁷ Ez ahaztu, dena dela, eskribauaren euskararen eragina ere egon daitekeela atzean.

³⁸ Zelaietak (2008, 100) gaur egungo mintzoan Beintza-Labaienen kokatu du Ekialdeko muga. Orobat, Salaburu eta Lakarren (2005) liburuak horren adibideak Baztango egungo mintzoan erruz

garbirik gabeko sermoi batzuetan ere badugu (Reguero, 2017, 634). Hau dateke, baina, lekukotasunik zaharrena Nafarroan, nahiz eta aurreko adibi-deek, otoitzak izanik, hamarkada edo are mende batzuk lehenagoko hizke-ra islatu. Baztango dokumentu zaharrak aise ondorengoak dira, baina XVIII. mendeko Baztango predikuetan badago (Lekaroz, 2006, 79), Etxenike elizondoarrak ere horrelakoak baditu XIX. mendean (Salaburu, 1986), mende bereko Elizalde gartzaindarraren predikuetan ere badira (Ondarra, 1993), eta bestelakoetan ere bai (cf. Pagola *et al.*, 1995, 302).

4. Ezaugarrien zerrenda, lexikoia eta adizkitegia

Atal honetan aurreko testigantzetan iruzkindu ditudan ezaugarrien zerrenda eman dut lehenik, lexikoia gero eta adizkitegia azkenik³⁹. Argi utzi nahi nuke, dena den, irakurketa edo interpretazio arras iluneko elementuak azken zerrenda honetatik landara utzi ditudala. Gainerakoan, zalantzak azalekoak badira, galdera ikurra paratu diet parentesien artean.

Ezaugarrien taulan (cf. 1. taula), ezkerreko zutabeen ezaugarriak zerrendatu ditut atalka sailkaturik. Eskuinekoan zein auzibidetan ageri diren heldu da.

Lexikoian (cf. 2. taula) adizkiak ez beste hitz guztiak sartu ditut. Lemetan grafia gaurkotu dut egungo arauetara doitzuz, baita bustidurei dagokienez ere. Izenordainen eta erakusleen kasuan forma deklinatuak gorde baditut ere, izenak eta adjektiboak absolutibo mugagabeen eman ditut. Aditzei partizipio marka gehitu diet parentesi artean, jatorrizkoak bestelako aspektua duenean. Orobat, berrezarritako hasperenak parentesi artean ezarri ditut.

dakartza eta Salaberri Zaratiegik (2000, 912) hegoaldeko goi-nafarreraren eremu osoan aurkitu ditu.

³⁹ Laburdurok baliatu dira tauletan: a. = aditza; ad. = adberbioa; adj. = adjektiboa; Agint. = agintera; det. = determinatzailea; I = Iruñeko lekukotasuna (1593); Ind. = Indikatiboa; interj. = interjekzioa; iz. = izena; izord. = izenordaina; N = Nagoreko lekukotasuna (1599); O = Oronozko lekukotasuna (1606); or. = orainaldia; Subj. = Subjuntiboa; U = Urdiango lekukotasuna (1597); UP = Uxue-Pitillasko lekukotasuna (1598).

Adizkitegian (cf. 3. taula) forma trinkoak eta perifrastikoak banatu ditut, eta hurrenkera alfabetikoan eman. Hurrengo zutabeen adizkiaren analisia heldu da, eta azkenik, zein lekukotasunetan ageri den.

1. taula. Ezaugarrien zerrenda.

EZAUGARRIA	LEKUKOTASUNA
FONOLOGIA	
Txistukarien neutralizazioa herskari aurretik	UP, N
IZEN MORFOLOGIA	
Erakusleak hasierako herskaririk gabe	N
Lehen graduko artikulua	UP
artikulurik gabeko predikatua	UP
<i>ene</i> posesiboa	U, N
Soziatiboa: <i>-ki</i>	I, N, O
Instrumentala: <i>-s(?)</i>	UP, N
Adlatiboa: <i>-ra</i>	UP
Linschmann-Aresti legea	U
<i>joan</i> 'eraman' aditz iragankorra	N
ADITZ MORFOLOGIA	
Partizipio pleonastikoa	N
<i>-i</i> partizipioa indikatibotik at	UP
<i>-en</i> geroaldiko aspektu marka <i>-n</i> amaierako aditzean	UP
<i>-i(n)-</i> erroa (vs * <i>eradun</i>)	UP
<i>-te</i> geroaldi/ahalera marka <i>izan</i> monopertsonalean	UP
<i>-z</i> pluralgilea * <i>edin</i> monopertsonalean (1. pl)	UP
<i>-te</i> pluralgilea 3. pertsonan	U, N
* <i>ezan</i> 3. perts. orainaldiko agintera (<i>d</i>) <i>e-</i> gabe	N
Geroaldia: [adizki trinkoa orainaldian + <i>-te</i>]	UP
Geroaldia: [<i>-en/-ko</i> + <i>-i(n)-</i>]	UP, O
Baldintza errearen protasian * <i>edin</i> erroa	UP
SINTAXIA	
Jabetza: [izord. posesiboa + izena]	U
<i>-rik egon</i> egitura	I

Ezeztapena: [ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia]	UP
utzi aditzaren osagarria adlatiboan	O

2. taula. Lexikoia

LEMA	KATEGORIA	LEKUKOTASUNA
Amador	iz.	N
a(ha)lke	iz./ad.	I
ai	interj.	U
albaeta(?) 'sare'	iz.	N
arkabuz/alkabuz	iz.	UP
arkabuzaldi	iz.	UP
auzi	a.	UP
bai	ad.	O
bat	det.	I
begi	iz.	O
begira(tu)	a.(?)	N
bellako	iz./adj.	I
bilau	iz./adj.	I
deamutxo	iz./ad.(?)	N
egiteko	iz.	N
egundaino	ad.	N
eman	a.	UP
ene	izord.	U
enegatik	izord.	N
etorri	a.	UP
ez	ad.	N
gende	iz.	U
gora	ad.	U
gure	izord.	UP
(h)ari(?)	det.	N
(h)aritz	iz.	N
(h)autsi	a.	N

(h)il	a.	U
(h)or	det.	N
(h)orri	det.	O
(h)osto	iz.	UP
izan(du)	a.	N
Jesus	interj.	N
joan 'eraman'	a.	N
lepo (h)ezur	iz.	N
nik	izord.	N
probetxu	iz.	U
sar(tu)	a.	O
senar	iz.	U
utzi	a.	O
zure	izord.	O

3. taula. Adizkitegia

TRINKOAK		
dago	<i>egon</i> (Hura), Ind. or.	
date(ke)	<i>izan</i> (Hura), Ind. or. +ahalera	UP
zaude	<i>egon</i> (Zu), Ind. or.	I
PERIFRASTIKOAK		
(ba)gaitetz	* <i>edin</i> (Gu) Subj. or.	UP
diogu(?)	- <i>i(n)</i> -(?) (Guk-Hari-Hura), Indik. or.	O
diot	- <i>i(n)</i> - (Nik-Hari-Hura), Indik. or.	UP
dut	* <i>edun</i> (Nik-Hura), Indik. or.	N
dute	* <i>edun</i> (Haiek-Hura), Indik. or.	U
(e)zazue	* <i>ezan</i> (Zuek-Hura), Agint.	N

5. Hondar hitza

Lan honek, beste batzuekin batera (Santazilia, 2015; 2017; 2019), gaztelaniaz idatzitako justizia auzibide zaharren dokumentazioan sakabanaturik

dauden euskarazko pasarteak eman nahi ditu ezagutzera. Euskararen historiako eta dialektologia historikorako datu-iturri baliagarriak direlakoan, horiek genero gisa dituzten ezaugarriak, abantailak eta mugak azaldu ditut. Pasarte horietako zenbait euskara aspaldi galdua duten eremuetaoak dira, eta informazio soziolinguistiko aberatsa ere badakarte. Horrekin batera, ahozko euskaratik duten hurbiltasunak balio handia eransten die.

Pasarteak testuinguruan paratu ditut eta edizio filologikoa egin. Ondotik, iruzkin linguistikoak eskaini ditut, pasarte bakoitzak XVI. eta XVII. mendeetako euskararen historiaren barruan duen lekua erakusteko asmoz. Ezaugarriak, lexikoa eta adizkiak ere zerrendatu ditut, ikerketarako lanabes izan daitezen.

Ikusi dugunez, eskribauek euren lana euskaraz egiteko eta pasarteak ongi ulertu eta transkribatzeko ez zuten arazorik izaten. Gainera, leku berean hainbat tokitako euskaldunak batera ikustea ohikoa zen, eta ez dirudi hango edo hemengo izatea arazo zenik elkar ulertzeko. Orobat, gaur egungo ezagutzatik abiatuta horien azterketa egitea ez ohi da lan bereziki nekeza, baina pasarte ilun zenbait ere badira, azalbide garbirik ez dutenak une honetan.

Garbi gelditu da, bestalde, testuak kronologikoki ongi kokatuak egon arren, erlatiboki diatopiko izateko aukera ere badutela, eta ez duketela beti tokian tokiko hizkera zorrotz islatzen. Eskribauek berek zerabilten euskararen eragina egotea ezin bazter daitekeen aukera da, etorkizuneko ikerketan kontuan hartu beharrekoa. Horrelako pasartearen corpusa handitu ahala, eskribau zenbaiten ohiturak, garaiak, testuen gaiak eta bestelako aldagaiak aztertzea eta kontuan hartzea beharrezkoa da.

Erreferentziak

ALTUNA, Roberto; ELORTZA, Kepa; ZUMALDE, Koldo, 2014, *Oñatiko euskertia: Ezagutu, aztartu, egin*. Oñati: Oñatiko Udala.

ARIZTIMUÑO, Borja, 2016, «Euskararen dialekto zaharrak aztertze saioa: aitagurren mithridates baten deskribapena», in Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makatza-

ga & Patxi Salaberri (arg.), *Hire Bordatxoan. Txipi Ormaetxea Omenduz*. Bilbo: UPV/EHU, 21-40.

ARTOLA, Koldo, 2006, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1-sarrera eta lehen galdera-sortak)», *FLV*, 103 (2006) 393-428.

———, 2007, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (2-inkestaren galdera-sortak)», *FLV*, 104 (2007) 5-32.

———, 2010, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (3-Ipar-Artzibarko laginak: Hiriberri)», *FLV*, 112 (2010) 5-50.

———, 2011, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (4-Ipar-Artzibarko laginak: Arrieta)», *FLV*, 113 (2011) 261-326.

———, 2012a, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (5-Hego-Artzibarko laginak: Ilurdotz I)», *FLV*, 114 (2012) 5-60.

———, 2012b, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (6-Hego-Artzibarko laginak: Ilurdotz II)», *FLV*, 115 (2012) 195-254.

———, 2013, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7-barnera begirako zenbait erkaketa)», *FLV*, 116 (2013) 31-90.

———, 2014a, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (8-Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa)», *FLV*, 117 (2014) 25-100.

———, 2014b, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9-aditzaz zenbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan)», *FLV*, 118 (2014) 393-435.

———, 2014c, *Ziorditik Uztarrozeraino. Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an*. Donostia: Arantzadi Zientzi Elkarte.

Bonaparte, Louis Loucien, 1881, «Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda (I)», *Revista Euskara*, 4 (1881) 161-166.

Camino, Iñaki, 2003a, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV*, 94 (2003) 427-468.

———, 2003b, *Hego Nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2008, «Nafarroa Behereko euskara zaharra», *ASJU*, XLII-1 (2008) 101-170.

———, 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

———, 2016, *Amiküze eskualdeko ^heskuara*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

ERDOZIA, Jose Luis, 2001, «Sakana erdialdeko euskara», UPV/EHUko doktorego tesia.

———, 2005, «Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean», *FLV*, 99 (2005) 307-334.

GÓMEZ-LÓPEZ, Ricardo, 2005, «De re etymologica: vasc. *-rantz* 'hacia'», in Pilar txo Etxeberria & Henrike Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 273-280.

GORROTXATEGI [GORROCHATEGUI], Joaquín & LAKARRA, Joseba Andoni, 2001, «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco», in Francisco Villar & María Pilar Fernández (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea, 407-438.

IBARRA, Orreaga, 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

IGARTUA, Iván & SANTAZILIA, Ekaitz, 2013, «Instrumentalaz gogoratzuz, instrumentuaz haratago. Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea», in Ricardo Gómez, Joaquín Gorrotxategi, Joseba Andoni Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 227-244.

IRIZAR [YRIZAR], Pedro, 1991, *Morfología del Verbo Auxiliar Guipuzcoano: Estudio Dialectológico*. Bilbo: Euskaltzaindia.

KNÖRR, Henrike & ZUAZO, Koldo (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak: ikerketa eta testuak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.

LAKARRA, Joseba Andoni, 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar bide berri», *ASJU*, 31-2 (1997) 447-535.

———, 2008, «Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)», in Xabier Artiagoitia & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: UPV/EHU, 451-490.

———, 2011, «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. Bilbo: UPV/EHU, 155-241.

LEKAROZ, Gorka, 2006, «Antzinako baztanera: XVIII mendeko prediku argitaragabe bat», *FLV*, 101 (2006) 69-94.

———, 2014-10-22, «Euskararen lekukoak: ARTZIBAR eta OROTZ-BETELU», *Lingua Navarrorum*. Hemen eskuragarri: <http://linguanavarrorum.blogariak.net/2014/10/22/euskararen-lekukoak-artzibar-eta-orotz-betelu/>

MADARIAGA, Juan, 2014, *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MADARIAGA, Nerea, 2001, «Datos para una tipología del cambio lingüístico en los términos referidos al cuerpo humano», *ASJU*, 35-2, (2001) 385-443.

MAIORA, Fernando, 2011, *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*. Egilearen argitalpena.

———, 2018, *Reino de Navarra. Euskera, lengua inteligible. Causas del retroceso. Injurias, coplas...* Egilearen argitalpena.

MANTEROLA, Julen, 2011, «-a morfemaren erabilera (eza) ekialdeko euskaretan», in Joseba Andoni Lakarra, Joaquín Gorrotxategi & Blanca Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 71-95.

———, 2015, «Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak», UPV/EHUko doktorego tesia.

MCINTOSH, Angus *et al.*, 1986, *A Linguistic Atlas of Late Mediaeval English*. Aberdeen: Aberdeen University Press. Hemen eskuragarri: <http://www.lel.ed.ac.uk/ihd/elalme/elalme.html>.

MITXELENA [MICHELENA], Koldo, 2011 [1961], *Fonética Histórica Vasca*. Berrarg. in: Joseba Andoni Lakarra & Iñigo Arzalluz (arg.). *Obras Completas VI*. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU. [= FHV].

———, 2011 [1964], *Textos arcaicos vascos*. Berrarg. in Joseba Andoni Lakarra & Iñigo Arzalluz (arg.), *Obras Completas XII*. Donostia & Vitoria-Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU. [= TAV].

———, 1978, «Miscelánea filológica vasca. I», *FLV*, 29 (1978) 205-228.

———, 1979, «Miscelánea filológica vasca. IV», *FLV*, 33 (1979) 377-406.

MITXELENA [MICHELENA], Koldo & SARASOLA, Ibon, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. [= OEH].

MONTEANO, Peio Joseba, 2017, *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Pamiela.

MOUNOLE, Céline, 2007, «Perifrasa zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria», *ASJU* 41-1 (2007) 67-138.

———, 2011, «Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique», UPV/EHUko eta Bordeaux IIIko doktorego tesia.

MOUNOLE, Céline & GÓMEZ-LÓPEZ, Ricardo, 2018, «Euskara zahar eta klasiko», in Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz, 469-541.

MOUNOLE, Céline & Joseba Andoni Lakarra, 2018, «Euskara arkaikoa», in Joaquín Gorrochategui, Iñigo Igartua & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz, 345-468.

ONDARRA, Francisco, 1982, «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi», *ASJU*, 40 (1982) 387-402.

———, 1993, «José Matías Elizalde (1776-1856), Urdazubiko monastegiko azken abatearen predikatuak», *ASJU*, 27-2 (1993) 575-611.

PADILLA-MOYANO, Manuel, 2017, «Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI – XIX. mendeak», UPV/EHUko eta Bordeaux Montaigneko doktorego tesia.

PAGOLA, Rosa Miren *et al.*, 1995, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Iparraldeko goi-nafarrera-1*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

———, 1996, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Hegoaldeko goi-nafarrera-1*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

RATKUS, Arturäs, 2010, «The adjective inflection in Gothic and early Germanic: structure and development», *Trinity College*-ko doktorego tesia.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, 2014, *Diccionario de la lengua española*. Hemen eskuragarri: <http://dle.rae.es>. [= DRAE].

REGUERO, Urtzi, 2015, «Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi-nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz», in Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatje, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 587 –598.

———, 2017, «Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak», UPV/EHUko doktorego tesia.



———, prestatzen, «NOR-NORI-NORK saileko perifrasiatiko aditz laguntzai-leak goinafarreraz: azterketa eta proposamen berria».

S.a., 2013, *Euskal Klasikoen Corpusa*. Hemen eskuragarri: <http://www.ehu.es/ehg/kc/>. [= EKC].

SALABERRI IZKO, Iker, 2018, «Ezeztapenaren hurrenkera euskal egitura perifrastikoetan: hurbilpen diakroniko-tipologikoa», *FLV*, 124 (2018) 55-83.

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, 2000, «Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskaren gainean». *Euskera*, XLV-3 (2000) 881-921.

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi & Urrizola, Ricardo, 2008, «Hiriberri Arakilgo predikuak I: transkripzioa eta azterketa», *FLV*, 108 (2008) 263-290.

SALABURU, Pello, 1986, «Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat», *ASJU*, XX (1986) 817-844.

SALABURU, Pello & Lakar, Maite, 2005, *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

SANTAZILIA, Ekaitz, 2009, «Luzaideko hizkuntz bariazioa», *FLV*, 111 (2009) 219-248.

———, 2013, «Noun Morphology», in Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction*. Peter Lang: Frankfurt am Main, 223-281.

———, 2015, «Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioren liburuari», *FLV*, 119 (2015) 109-146.

———, 2016, «Zaraitzueraren lekukotasunak XVIII. mende bukaeran: hiru testu zahar eta autore berri bat» *FLV*, 121 (2016) 67-120.

———, 2017, «Orye, *lagunac*. Euskara nafarraren aztarnak XVI. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan», *RIEV*, 62-2 (2017).

———, 2019, «*Ala ffede, bada!* Euskal testu berri gehiago Nafarroako XVI. mendeko justizia auzibideetan», *Uztaro*, 108 (2019), 29-51.

SARASOLA, Ibon, 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*, 17 (1983) 69-212. [= ConTAV].

SATRUSTEGI [SATRUSTEGUI], Jose María, 1987, *Euskal testu zaharrak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.



———, 1992, «Cuatro promesas matrimoniales inéditas, en euskera del s. XVI», *FLV*, 59 (1992) 55-70.

TRASK, Robert Larry, 1995, «On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque», in José Ignacio Hualde, Joseba Andoni Lakarra & Robert Larry Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam: John Benjamins, 207-234.

———, 1997, *The History of Basque*. Londres: Routledge.

TREBIÑO, Imanol, 2001, *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: HAEE.

ULIBARRI, Koldo, 2008, «Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat», *ASJU*, XLII-1 (2008) 191-208.

———, 2011, «1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: *Cancion en lengua vascongada o vizcayna que contiene la sustancia deste sermon*», *ASJU*, XLV-1 (2011) 361-385.

———, 2013, «Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara», in Ricardo Gómez et al. (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 511-532.

ZELAIETA, Edu, 2008, *Baxtan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZUAZO, Koldo, 2010, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.